

Zer arnasten ari gara?

Eitzagako hondakindegiko suteak amatatu eta kea desegin den arren, Durangaldeko herritarren artean aspaldikoa den kezka berpiztu da berriro: airearen kalitateari buruzkoa. Durangoko eta Elorrioko udalek eta Abadiño eta Berrizko

oposizio taldeek airearen kalitatearen gaineko neurketak modu zehatzagoan egin daitezela eskatu dute. Bien bitartean, Joaquin eta Alberto beharginak erreskatatzeko lanek aurrera segitzen dute Zaldibarko hondakindegian • 2-4



“Umeak museora ekartzea oso garrantzitsua da, eta hori ez da egin orain artean”

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa • 14



Igerilekua itxita egongo da haizeteen eraginez apurturiko estalki zatia konpondu bitartean

Abadiño | Igerilekuan urtero egiten dituzten mantentze lanak aurreratu dituzte, Aste Santuko aste bietan zabalik edukitzeko. • 6



Mallabian protesta egin dute argindar lineako lanen kontra

Mallabia | Dagoeneko hasita daude Gueñes eta Itsaso lotuko dituen goi-tentsioko linea egiteko lanak, eta eskualdeko sei herritako lurretatik igaroko da, tartean Mallabitik. • 10. orrialdea

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C • Tel.: 946 824 550
GERNIKA Golko Ibarra, 26 • Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



ENBORRAK
EZPALETAN
ZATITZEKO
GAILUA



BIRRINGAILUA



AREA



MAILUEN
MOTOSEGA



Joan zen zapatuan, milaka herritarrek parte hartu zuten Zaldibarren gertatutakoa argitzea eskatzeko egindako manifestazioan. Eitzagan amaitu zen eta Durangaldeko hainbat herritar bertan izan ziren.

Joan dira sugarrak, joan da kea; baina herritarren kezka Durangaldeko kale eta udaletan geratu da

Ingurumen, Osasun eta Segurtasun Sailetatik heltzen diren mezu lasaigarriek ez dute itxarondako eragina izan Durangaldeko biztanleengan. Sutea amatatzea lortu eta kea joan den arren, Zaldibarko hondakindegian gertatutakoak aspaldiko kezka piztu du: zer arnasten ari ote garen.

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Agintariak lasaitasunerako deia egin duten arren, mezuek ez dute itxarondako eragina izan Durangaldeko herritarrengan. Joan da sutea. Joan da kea. Baina ez herritarren kezka. Ezta lixibatuak ere. Eusko Jaurlaritzak eta Durangaldeko herritarren zati handi batek pertzepzio kontrajarri bi agertu dituzte hondakindegiko lur-jausiak ekarri duen guztiaren aurrean. Horren erakusgarri da asteon Durangaldeko hainbat udalek airearen kalitatea modu zehatzagoan neurtzeko egindako eskaria. Eta horren erakusgarri da Zaldibarren egunean egindako protesta.

Neurketa eskariak udaletan

Durangoko Udala izan zen Jaurlaritzari furano eta dioxina mailak

Airea modu zehatzagoan neurtzea eskatu dute Durangon, Elorrian, Berrizen eta Abadiñon

neurtzeko eskatu zion lehenengoa. Astelehenean egin zuen eskaria, eta gauza bera egin zuen Elorrioko Udalak egun horretan bertan. Gerora, Berrizen eta Abadiñon ere egin dituzte antzera bateko eskariak. EH Bilduk egin zuen Abadiñon. Eta EH Bilduk eta Podemosek Berrizen.

Orain, suak amatuta eta kea deseginda, ikusteke dago ea Jaurlaritzak eskari horiek aintzat hartzen dituen. Hau da, ikusteke dago ea Jaurlaritzak airearen kalitatea modu zehatzagoan neurtzeko eskari hori Zaldibarko hondakindegia kasuistika bakarrik mugatzen duen ala Durangaldeko herritarrek airearen kalitateari buruz duten aspaldiko kezka erantzuteko baliatzen duen.

Eitzagako berdurak

Joan zen asteen, Eitzagako berdurak ez kontsumitzeko deia egin zitzaion hango bizilagunei. Osasun Saileko teknikariek modu prebentiboan eman zieten neurria. Hango berdura batzuk hartu zituzten,

laborategi azterketa bat egin eta toxikotasun maila neurtzeko. Bada, analisi horien erantzuna martitzen honetan ailegatu da. Eitzagako auzotarrei bertako berdurak "arazorik barik" kontsumitzeko argibidea eman diete. Erika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa da, eta Amaia De Ariño

Jaurlaritzaren Erika Fundazioak dio berdurak "arazorik barik" jan daitezkeela

bertako doktoreetariko bat. Bere esanetan, Eitzagako inguruetak lurretan ez da arrasto toxikorik agertu, eta, logika horren ondorioz, barazkiek ez lukete zantzu toxikorik eduki behar. Edozelan ere, berduen euren analisiak aste amaieran helduko zaizkiela azaldu zuen De Ariñok.

Urkulluren agerraldia

Hondakindegia inguruan gertatzen dabilena euskal politikaren lehenengo lerrora ailegatu zen martitzenean bertan. Iñigo Urkullu lehendakariak azalpenak eman zituen Eusko Legebiltzarreko bozeramaile batzordean. "Ulertzen dut mina, bereziki, langile bien familia", azaldu zuen. Egindako "akats" posibleen inguruan barkamena eskatu zuen, eta arazoari "batasunez" erantzuteko premia aldarrikatu zuen.

Joaquin eta Alberto


Edizio hau ixterako, aurrera segitzen zuten Joaquin eta Alberto langileak aurkitzeko lanek. Sutea amatu eta gero, erreskate taldeko kideek hondakindegia arlo bat egonkortzea lortu zuten. Hain zuzen ere, hondakindegiko baskula zegoen inguruan dabilta lurra kentzen, behargin biak han inguruan egon daitezkeelakoan. Josu Zubiaga Segurtasun sailburuak azaldu duenez, azken ordu hauetako eguraldia "mesedegarria"

Hondakindegiko lurren zati bat egonkortuta, erreskate lanek aurrera jarraitzen dute

izango da erreskate lanetarako, ez dago euririk iragarrita eta. Hondakindegia egonkortasunari buruz, mahai teknikoko kideek esan dute ez dagoela beste "lur-masa" bat jausteko arriskurik. Dena dela, berriro halakorik pasatuko balitz, "abisu sistema" batek berehala ipiniko lituzke martxan "beharrezko eragile guztiak".

Talde ekologisten oharra

Hainbat talde ekologistek oharra kaleratu dute. Ekologistak Martxan iritzi, gertatutakoa "ez da istripua izan, hondakinak kudeatzeko ereduaren ondorioa baino". Ildo beretik berba egin du Bizirik-Betiko elkarteak ere: "Legeen desregulazteek horrelako ingurumen sarraskiak dakartzate, modu boluntarioan edo ez boluntarioan egindako sarraskiak".



Durungaldea da hondakindegia kopururik handiena duen eskualdea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hondakindegien %25 gure lurraldean daude

Lau dira Durungaldeko lurretan erregistratutako hondakindegia: Mallabiko Betearte, Abadiño Sistrimin, Zaldibarko Verter Recycling eta Iurretako Torrebasa. Azken hau ez dago martxan gaur egun, baina laurak kontuan hartuta, Autonomia Erkidegoan dauden hondakindegien %25 dira. Bestalde, Durungaldeko mugetatik oso gertu dago Bistibietako hondakindegia. Lemoa da eremuz, baina Zornotzako Kortederra industrialdea ondo-ondoan du

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lau hondakindegitik bat Durungaldean dago. Eta kopuru hori erraz puztu daiteke baldin eta eragin esparruagatik Durungaldeko muga-mugan daudenak ere kontuan hartuko balira. Eusko Jaurlaritzak bere lurretan baimenduta dituen hondakindegien zerrenda argitaratu zuen otsailaren 14an. Zaldibarko Verter Recycling 2002 hondakindegitik aparte, Durungaldeko beste hiru ageri dira zerrenda horretan: Mallabiko Betearte, Abadiño Sistrimin eta Iurretako Torrebasa. Azken hau gaur egun ez dago martxan, baina Jaurlaritzaren zerrendan ageri den hondakindegietariko

bat da. Laurak kontuan hartuta, Jaurlaritzak baimendutako hondakindegien %25 leudeke Durungaldeko lurretan.

Bestalde, eskualdetik kanpora kokatuta egon arren, beste hain-

Hondakindegietako lur-jausiak ez dira berriak: Larrinagatxun eta Goiurian egon izan dira

bat hondakindegia Durungaldeko atarian daude. Gertuen dagoena Bistibietakoa da. Zornotzatik Galdakaorako bidean, N-634 errepidea-

ren bazter batean dago. Lemoako lurretan dago, baina gertu ditu Zornotzako Kortederra industrialdea eta inguruko etxeak. Beste hondakindegia batzuk Igorreko Deydesa eta Larrabetzuko Cespa dira. Durungaldekoak izan ez arren, kilometro gutxitara dauden hondakindegia dira edozelan ere.

Ez da kezka berria

Zaldibarkoa orain bolo-bolo dagoen arren, kezka ez dira berriak. Urteetan atzera egingo bagenu, ikusiko genuke Durungaldeko herritarrek aspaldidanik agertu dutela hondakindegien gaineko kezka. Esaterako, 2013ko otsailean lur-jausi bat egon zen Larrinagatxutik

Bitañorako inguruetan. Fumbarri enpresak betetze lanak egin zituen inguru hartako hondakindegia batean, 80ko eta 90eko hamarkadetan. Gerora, 2013an, lur-jausia etorri zen. Urte hartan, Durangoko

Zornotzako herritar batzuek Bistibietako hondakindegia gaineko kezka agertu dute

Udaleko ordezkariak azaldu zuten 10.000 kubiko lur baino gehiago jausi zela. Luiziak erreka estali zuten eta, ondorioz, urak gainezka

egin eta bidea apurtu zuen. Lur-jausiak arbola batzuk ere bota zituen.

Memorian gelditutako beste hondakindegia bat Iurretako Luku Txiki eta Lukupeko Troka inguruetakoa da. Gutxienez lur-jausi bat erregistratu zen 2013an. Goiuriko auzotarrek hondakindegia aurrak jarrera irmoa hartu zuten urte luzez. Bestalde, Zornotzako herritarrek Bistibietako hatsari buruzko kezka helarazi diote ANBOTOrri asteon. Gaia udalera ere ailegatu da, hainbat bider. Eta noski, ez da ahaztu behar orain gutxira arte Berrizen ere bazegoela hondakindegia bat. 2008an zarratu eta 2012an zigilatu zuten Berrizburuko hondakindegia. Gai inerteak zeuden han.



MARIA BASETA
MIKEL GARRO

EHUKo ikasleak



JOKIN
ELORZA

Botikaria Elbarren



AITOR
GARITAGOITIA

Ermuan bizi da



MARIBI
CARRILO

Ogi banatzailea Ermuan

“Greban gaude uste dugulako EHUK ez dituela gauzak argi esan”

Zuek biok energia berriktagarrien inguruko ikasketak egiten zabilzate. Zergatik erabaki duzue greba egitea?

Greba mugabakora deitu dugu. Uste dugu EHUK ez dituela gauzak argi esan. Ez dakigu zer gertatzen dabilen eta airearen kalitatea zelakoa den. Zabortegitik oso gertu gaude eta oso arduratuta gaude. Ez dute gure segurtasuna ondo bermatu.

Zabortegitik oso gertu gaude eta oso arduratuta gaude

Gainera, ez dakigu honek zer eragin izango duen gure osasunean epe luzera. Bestalde, zer gertatuko da horko zabor guztiagaz? Kezkatu-ta gaude.

Prebentzio neurriak aholkatu dituzte herritarrentzat.

Hasieran ez genion garrantzi handirik eman. Gu ez gara hemen bizi. Ikastera gatoz, eta, beraz, kirolaren kontuak ez digu hainbeste eragin. Leihoak ixtearenak bai.

EHUn haurdun dauden emakumeei lanera ez etortzeko gomendatu diete. Bai, eta eurei eragiten badie, guri ere bai zeozelan.

“Jendea aho maskarak erostera etorri da botikara, eta agortuta daude”

Zelan bizi izan dituzu egun hauek?

Hasieran, dena ondo zegoela zioten mezuak heldu zitzaizkigun, baina arduraz bizi izan genuen, tragedia bat izan delako, baina maila pertsonalean nahiko lasai nago. Barikutik aurrera, oster, mezua aldatu egin zen, eta, harrezkero, kezka eta ardura nagusitu ziren herritarren artean. Mezu hori aldatzera, konfiantza ere galtzen da.

Konfiantza falta dago eta zurrumurru asko entzuten da

Sutea amatatuta, jendea lasaiago dagoela esango zenuke?

Konfiantza falta dago eta zurrumurru asko entzuten da.

Botikan, igarri duzue kutsaduraren eraginik?

Horrelako egoera baten aurrean ezin da gauza askorik egin. Jendea aho maskarak erostera etorri da botikara, eta agortuta daude. Sendagai garbigarriren bat edo eztarrirako zeozer eskatzera ere etorri dira, baina guk ez dugu gauza askorik egiteko. Badakit haurdun dauden emakume batzuk ere medikuarengana joan direla.

“Dioxinen eta furanoen gaineko informazioa jasotzean eskuak burura eramane genituen”

Mallabitarra izan arren, Ermuan bizi zara. Zelan bizi izan dituzu azkenengo egun hauek?

Gai hau lasaitzen joan da. Hasieran, autobidean lur-jausia ikusi nuen. Gero, zabortegia zegoela eta langile bi harrapatuta zeudela jakin genuen.

Igarri duzue kea?

Aurreko zapatuan, kea eta hatsa zeuden. Ermuan asko igarri genuen

Hondakindegia horretan benetan zer dagoen jakiteak kezkatu egiten nau

hatsa. Udalak bandoa atera zuen dena ondo zegoela esateko, eta, beraz, nahiko lasai geunden. Dioxinen eta furanoen gaineko informazioa jaso genuenean, oster, eskuak burura eramane genituen. Jendea larritzen hasi zen. Umeak barruan gelditu ziren jolasaldian... Ni aurreko astean kirola egitera joan nintzen... Orain sua amatatu dutela dirudi.

Orain lasaiago zaude?

Lasaiago nago aire kutsaduraren arloan, baina ez kudeaketaren aldetik. Hondakindegia horretan benetan zer dagoen jakiteak kezkatzen nau.

“Banaketarako erabiltzen dudan furgonetak kedar arrastoak ditu; sutearen keagatik dela uste dut”

Mallabitarra zara, baina Ermuan dago zuen lantokia. Ogi banatzen aritzen zara Ermuan, Berrizen eta Zaldibarren. Zelako egunak izan dira?

Ogia auzorik auzo banatzen dut, han-hemenka. Berdin Mallabia inguruetan zein Berrizko Andikona auzoan. Banaketa furgonetagaz egiten dudanez, barruan egon izan naizenean ez dut aparteko usain edo hatsik igarri. Gero, Ermura

Ermuko bezero batzuk oso larrituta egon dira egunotan; eztarrion korapiloa zutela zioten

bueltatu izan naizenean, orduan bai. Hats handia igarri izan dut. Nire furgonetaren txapa gainean kedar modukoa dago itsatsita. Lehen ez zegoen hor. Zapatuan garbitu egin nuen furgoneta, eta zikina ezin da kendu. Esango nuke sutearen keak botatakoaren ondorio dela.

Bezeroak larrituta ikusi dituzu?

Batzuk oso larrituta egon dira, adin- duak bereziki. Askok esan didate eztarri inguruan korapilo moduko bat sortu zaiela egunotan. Kea irentsi dutela. Haserre ere badaude. Askok Eitzagako manifestaziora joan ziren.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko otsailaren 21a
18. urtea - 795. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Ikastetxeetan teknologiak indar handiagoa hartzearen alde gaude, zentzuz erabiltzen bada”

Mari Luz Gueneaga Deustuko Unibertsitatean teknologia eta hezkuntza aztergai dituen ikerketa talde baten buru da. Kurutziaga Ikastolako guraso izanik, ezagutzen du ikasle eta irakasleek ikastetxeetan duten teknologiaren erabilera

Mari Luz Guenaga Gomez
Ikerlaria
Eibar | 1975

DURANGO • IGOR GALARZA

Mari Luz Guenagak Deustuko Unibertsitatean irakasle eta ikerlari lanetan dihardu. Ikerketa taldearen buru da eta teknologiarantz eta hezkuntzara bideratuta egiten ari da ikerlana, 2010etik.

Asko hazi da teknologiak hezkuntzan duen eragina azken hamarkadan?

Hamar urtean teknologiak indar handiagoa hartu du ikastetxeetan, eta horren alde gaude. Hori bai, teknologia zentzuz erabiltzen bada. Ikasgelan besterik barik sartzea ez da onuragarria. Teknologia erabiltzeak zentzurik ez badu, hobe beste metodologia eta baliabide batzuk erabili.

Zer ekarpen egin diezaieke teknologiak irakasleei?

Ikasleekin teknologia erabiliz gero, erabilera horren arabera ikasleen datuak eskaintzen zaizkio irakasleari. Horrek, informazio gehiago emateaz gainera, hezkuntza hobetzen lagundu diezaioke irakasleari.

Ordenagailuak arreta galarazi diezaioke ikasleari.

Teknologia distraxiorako tresna handia izan daiteke. Hori ekiditeko, alde batetik, irakasleak ondo eratu behar du klase orduaren diseinua; ondo zehaztu behar dira ordenagailuaren aurrean egon beharreko uneak, eta ordenagailua amatatuta egon beharrekoak. Ikasleak klase ordu osoan piztuta badauka, segituan joko du klaseari ez dagokion jarduerara batera.

Noiz da une egokia seme-alabei mugikorra eskura emateko?

Inoren etxean sartzea arriskutsua da. Hala ere, galderak planteatu behar ditugu: mugikorrak jolas-tea txarra da? Telebista ikustea hobe da? Bestalde, pribatutasunaren kontzeptua berreskuratu behar dugu, eta gazteei erakutsi zer partekatu daitekeen sare sozialetan eta zer ez.

Zelan lagundu diezaieke guraso batek etxean bere seme-alabei ikasgelako konputagailuen erabileragaz?

Lehenengo, gurasoa informatu egin behar da zeintzuk diren lan metodori egokienak. Izan ere, gurasoak baditugu lan metodo batzuk egokiak ez direnak. Horrez gainera, ikasketa kontuetatik kanpora, gurasoa kontziente izan behar da sareetako mezuak txarto interpretatu daitezkeela, eta eskola jazarpenak areagotu egin daitezkeela.

GLB Berria.

Utzi bizitzak harritu zaitzan.

Bizitza nolakoa izango den jakitea ezinezkoa denez, bizi ezazu GLB berriarekin. Gidatu Mercedes-ek duen SUV konpakturik malguena eta utzi bere diseinu sendoak eta kirol-diseinuak harritu zaitzaten. Gainera, gozatu karga modularreko espazio handiaz; honek zure behar guztietara egokitzeko aukera emango dizu. Horrela, etorriko den bidea gorabehera, bidaia-lagunik onenarekin egin ahal izango duzu.

Ekipamendua:

- Ukipen-pantaila duen widescreen gidatze-postua.
- MBUX adimen artifizialeko sistema.
- Luzetara erregulatzeko moduko atzeko eserlekuak.
- Eserlekuen hirugarren ilara, aukerakoa.
- Atzera-martxako kamera eta PARKTRONIC.



Mercedes-Benz

Aguinaga

Mercedes-Benz Kontzesionario Ofiziala
Retuerto kalea, 38. 48903 BARAKALDO. Tel.: 94 497 00 74. Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47.
Botica Vieja kalea, z.g. 48014 BILBO (DEUSTU). Tel.: 94 447 08 40. Iparragirre etorbidea, 90. 48940 LEIOA. Tel.: 94 463 11 75.
www.mercedes-benz-aguinaga.es



Igerilekuaren eskumako aldeko estalkiaren zati bat jausi zen.

Astolako igerilekua itxita egongo da hamabost bat egunean, joan zen domekan estalkiaren zati bat jausi eta gero

Behin konpontzen hasita, lanek hamabost bat eguneko iraupena izango dute; urteroko mantentze-lanak egiteko aprobetxatuko dute, bide batez

ABADIÑO • A.M.

Joan zen domekan egon ziren hai-zeteen eragina nabarmena izan zen Durangaldean. Arazorik larrienetariko bat Abadiñon gertatu zen, izan ere, Astolako kiroldegiko estalkiaren zati bat igerilekura jausi zen haizeteen ondorioz. Ordutik hona, igerilekua itxita dago. Baina kiroldegia zabalik dago. Udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi zuenez, igerilekua itxita egongo da hamabost bat egunean, behin lanak hasita. Bide batez,

Estalkia konpontzeko obrak urtero egiten diren mantentze-obrak egiteko baliatuko dituzte

estalkia konpontzeko lanen ondorioz itxita egongo denez, urteroko mantentze-lanak egiteko aprobetxatuko dutela adierazi zuen udalak ohar berean. Hartara, neurri honegaz igerilekua ez litzateke zer-

tan zarratu Aste Santuan. "Urtero egiten diren mantentze-lanak egiteko aprobetxatuko dugu. Horrela, Aste Santuko aste bietan igerilekua zabaltzeko moduan egongo gara", diote oharrean.

Igeriketa eskolak

Erabiltzaileek "urtean zehar" berreskuratu ditzakete itxieraren ondorioz galduriko igeriketa eskolak, Abadiñoko Udalak oharrean adierazitakoaren arabera. Beraz, obrak hasi eta hamabost bat egunera

Erabiltzaileek "urtean zehar" berreskuratu ditzakete galdutako igeriketa eskola orduak

amaitzea aurreikusten dute. Hala ere, lanak luzatuz gero, atzerapen horren berri emango diote herri-tarrei. "Erabiltzaileek galdutako eskola orduak jasoko dute", diote oharrean.

Neurriak

Domekan jausi zen estalkiaren zatia uretara, 11:00etan. Zorionez, une horretan ez zebilen igerilaririk igerilekuan. Udal arduradun eta teknikariak batu eta gero, kalteen garrantzia eta kalteak konpontzeko egin beharrekoak baloratu zituzten. Udal kiroldegiko aparkalekua hustea izan zen harturiko lehenengo neurrietariko bat. Horrez gainera, inguruko ibilgailuak ere kendu ziren, "segurtasuna bermatzeko asmoz".

Berrizko Udalak "hainbat zerbitzu kanpora atera" gura dituela dio EH Bilduk

Oposizioek enplegu publikoaren alde daudela jakitera eman dute prentsa ohar bidez

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EH Bilduk aste honetan prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, eurek enplegu publikoaren alde daude, baina Berrizko Udalak "kanpora atera gura ditu" hainbat zerbitzu. Oposizioek jakinarazi dutenez, Berrizko Udalak organigrama orokorraren azterketa bat egitea eskatu zion enpresa bati. "Udalak emaitzak aspaldi jaso zituen arren, oposizio alderdion oraindino ez zai-gu inolako dokumenturik heldu.

Dugun informazioa oso urria da, baina Berrizko Udala zerbitzuak kanporatzeko prozesu batean sartzeaz dagoela ematen du", azaldu dute oposizioek.

Oharrean diotenez, udalaren zenbait zerbitzuren kudeaketa kanpora ateratzeko asmoa izan dezake udalak, tartean kiroldegia zerbitzua. "Horrek gatu gehigarri bat ekarriko lioke udalari, eta posible litzateke erabiltzaileen prezioak garestitzea", esan dute. Horregaz lotuta,

EH Bildukoek diote kudeaketa publiko integral baten aldekoak direla.

Bestalde, udalaren ongizate zerbitzua Amankomunazgora transferitu gura dutela eta ur zerbitzua patzuergoaren esku utzi gura dutela sumatzen dutela azaldu dute. "Esaterako, ongizate zerbitzua hain garrantzitsua izanik, herritarrekin eta oposizio alderdiekin egiaztatu beharko litzateke", kritikatu dute EH Bildukoek.



EH Bilduk dio udalak kanpora atera dezakeela kiroldegiko zerbitzua.

Haur txikientzako aisialdi gunea zabaltzen hasi dira Elorrioko Ametsola espazioan, martitzen eta eguenetan

Otik 6 urtera bitarteko haurrei bideratuta dagoen espazio estalia da. Irudimena azaleratzeko aukera ematen dien aisialdi gune bilakatu dute hainbat gurasok. Tailer ugari antolatzen asmoa dute, haur guztiei eskainitakoak eta doan. Bakoitzak bere denborapasa irudimenagaz igarotzeko aukera ematen du lokalak



Ume eta gurasoak Ametsola espazioan.

Irudimenaren arnasgune

Eli Villar Salor gurasoa "proba" lez hartzen dabil hilabete eta erdia. "Gurasoak haurrak bezain gustura" daudela esan du. Guneak irudimena azaleratzeko aukera ematen duela iradokitzen dute gurasoek: "Hainbat material erabilita, eta haurren arteko komunikazioa gehituz, bakoitzak bere denborapasa irudimenagaz igarotzeko aukera ematen du lokalak", adierazi du

Zerbitzua egun gehiagotara zabaltzea etorkizuneko aukera bat dela esan dute gurasoek

Villarrek. Denborapasa horien artean, hainbat ekintza egin dituzte haurrekin; besteak beste, txokolatezko hostoak egiteko tailerra eta argiagaz egindako jolasak.

"Materiala etxetik ekarri behar den tailerrak ditugu. Baina materiala guk ipini behar badugu, aurretik izena ematea baino ez dugu eskatzen. Doan da", azaldu dute. Asteazken birritan zabaltzea "nahikoa" iruditzen zaien arren, zerbitzua egun gehiagotara zabaltzea etorkizuneko aukera bat dela esan dute.

ELORRIO • IGOR GALARZA

Elorrioko Ametsola gunean hainbat guraso batu ziren etxeko txikienei aisialdi zerbitzu bat eskaintzeko asmoz. Urtarriletik dago martxan martitzen eta eguen arratsaldeetan zabaltzen duten espazioa, eta, bertan, Otik 6 urtera

bitarteko haurrek denborapasa ugari dituzte, arratsaldeko orduak luze egin ez daitezken.

Orain pare bat urte ludoteka bat zegoen han zabalik, umeei bideratutakoa. Denbora igaro ahala indarra galtzen joan zen, haur kopurua murrizten zihoan, eta,

azkenean, proiektuari amaiera eman behar izan zioten. Hala ere, Elorrioko gurasoek proiektua aldatu eta beste bultzada bat ematea proposatu zuten, eta Elorrioko Udalak eta Haur Partzuergoak materialerako emandako laguntzerkin lana aurrera atera ahal izan

zuten. Itziar Agirretxe Irigoienek, proiektuan beharrean dabilen gurasoetarikoa batek, azaldu duenez, hasieran "kostatu" egin zitzaizkien lanari segida ematea. Ia urtebetez aurrelanketaren ondoren, gurasoak "pozik" daude lehenengo asteetako emaitzagaz.

Atxondoko Udalak ludoteka berri bat egin gura du eskolako eraikin zaharrean

Horrez gainera, prozesu ireki baten bitartez ludotekako zerbitzua lizitatu egingo dutela jakinarazi dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi duenez, herriko eskolako eraikin zaharrean ludoteka berria egingo dute, herriko ludoteka "indartu" eta "handitzeko" asmoz. Oharrean azaldu dutenez, ludoteka "jarduera gehiagotzeko" zabaltzea da udalaren asmoa. "Horretarako, prozesu ireki bat abiatuko da, eta orain arte zerbitzuaren ardura izan duen Marixurrike elkartearen bertan egotea gura genuke, zerbitzua indartu, osatu eta hobetzeko helburuagaz", adierazi du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.

Bestalde, orain arte zerbitzua kontratu "txikiago" batez eta diru-laguntza baten bitartez ordaindu izan dela jakinarazi dute udaleko kideek, eta hori "lehenbait" arautu behar dela.

Horrez gainera, datozen astetan prozesu ireki baten bitartez gaia landuko dutela eta ondorioak dituztenean ludotekako zerbitzua lizitatu egingo dutela azaldu dute prentsa oharrean.



Ludoteka zerbitzua eskola ondoko eraikinean ematen dute.

Garain berbaldi bi eskainiko dituzte iruzurrak eta lapurretak saihesteko

Otsailaren 24an izango da bata, eta otsailaren 25ean bestea. Adinekoei zuzendutako berbaldiak dira gehienbat

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko kultur etxean kontsumo gaiei lotutako hainbat berbaldi izango dira egunotan. Batetik, Olatz Hilario kontsumo hezitzaileak ohikoenak diren iruzurren inguruko berbaldia eskainiko du astelehenean, otsailaren 24an.

Bestetik, Ertzaintzak, Amankomunazgoagaz elkarlanean, lapurreten inguruko berbaldi eskainiko du, otsailaren 25ean. Hitzaldi biak Garaiko kultur etxean eskainiko dituzte, eta 17:00etan hasiko dira. Bai berbaldi bata zein bestea adinekoei zuzenduta egongo dira.



Otsailaren 25ean, Ertzaintzak lapurreten inguruko berbaldia eskainiko du.

Hilean egun bitan Lanbidek enplegu zerbitzua eskainiko du Otxandion, erakundearen eta udalaren arteko akordio bati eskerrak

Zerbitzuen zentralizaziorako joera nagusitzen den sasoian "kontrako norabidean emandako aurrerapausoa" deritzo akordioari Egoitz Garmendia alkateak



Aste honetan bertan hasi dira zerbitzu berria eskaintzen, udaletxeko Bake Epaitegian.

OTXANDIO • J.DERTEANO

Otxandioko Udalak eta Lanbideko arduradunek enplegu zerbitzua udaletxean eskaintzea adostu dute. Aste honetatik bertatik hasita, aurrerantzean, hileko lehenengo eta hirugarren martitzenetan, 09:00etatik 14:00etara, Lanbideko

langile bat udaletxeko Bake Epaitegian izango da. Otxandiarrei ez ezik Ubideko biztanleei ere eskainiko die zerbitzua. 2. mailako arreta eskainiko du. Hau da, gestio motarik gehienak egingo ditu, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan, bertan ez da erabakirik

Hileko lehenengo eta bigarren martitzenetan eskainiko dute zerbitzua, udaletxeko Bake Epaitegian

hartuko, baina tramiteak bideratuko ditu.

Zerbitzu berriagaz, otxandiarrek ez dute Durangora joan beharrik izango Lanbideren inguruko gestioak egitera. Baina batekoagatik zein bestekoagatik zerbitzua eskatzera Durangora doazenek, han ber-

tan ere izango dute aukera Otxandion ordua eskatzeko. Hasierako asteetan, gertutik jarraituko diote zerbitzu berriaren funtzionamenduari, aldaketarik egitea (egunak, ordutegia...) komeni den ikusteko.

Aurrerapausoa

Egoitz Garmendia alkateak dio herritarren artean bazegoela "keza", apurka zerbitzuak urritzen zihoazelako herrian, gaur egungo joera zentralizatzailearen eraginez.

Zerbitzu berriagaz, otxandiarrek ez dute Durangora joan beharrik izango

Esaterako, Kutxabank bankua ez du egun guztietan zabalik egoten, eta pediatria zerbitzua Legutition dute. "Ildo horretatik, Lanbidek zerbitzua Otxandion eskaintzea kontrako norabidean emandako aurrerapauso bat da, eta garrantzitsua Otxandiorrentzat", adierazi du alkateak.

Zerbitzu berriak beste onura bat ere izango du: udaleko gizarte zerbitzuaren eta Lanbideren arteko hartu-emana estutu egingo da eta erraztu egingo du bata besteari kontsultak egitea.

San Antonioko auzotar batzuk ez daude konforme Aldundiak egindako iragarpenagaz

Orain egun batzuk, Aldundiak errotonda bat eta goi-pasabide bat egingo dituela iragarri zuen. Bizilagun batzuek doako AP-8a aldarrikatu dute egoera honen konponbide modura

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Iragarritako neurriak ez zaizkie nahikoa iruditu, eta Zornotzako San Antonio auzoko bizilagunen parte batek, Iurretako bizilagun batzuek eta A-8 Peajerik ez! plataformako kideek N-634 errepidea moztu zuten berriro martitzenean, San Antonio auzo parean.

Bizkaiko Foru Aldundiak bertako bizilagunen bide segurtasuna hobetzeko neurriak iragarri zituen orain aste batzuk. Auzoaren alde biak lotzeko, goi-pasabide bat eta errotonda bat egingo zituela iragarri zuen, baina auzotarren parte bat ez dago horregaz konforme. "Aldundiak proposatzen dituen goi-pasabideak

eta errotondak ez dute arazoa konponduko. Arazoa trafikoa da, egunean 24.000 auto pasatzen dira hemendik eta. A-8 autobidea doakoa izateak eman diezaioke konponbidea arazoari", azaldu du Juan Carlos Poderoso A-8 peajerik ez! plataformako kideak.

Obretako beharginek erabiltzen dituzten kaskoak buruan zituztela, hoguei bat lagunek ordu erdi inguruan gelditu zuten trafikoa. Bitartean, errepidean ez atzera eta ez aurrera gelditu zirenen klaxon hotsa entzun zitekeen. Ertzaintzak San Migel aldetik bideratu zuen Durangotik Zornotzarako trafikoa.



Obretako beharginek erabiltzen dituzten kaskoak jantzita egin zuten protesta.

Zaldibarren 8.260 euro batu dituzte Herriko Misiolariak taldeari laguntzeko

ZALDIBAR • A.M.

Aurten ere, Herriko Misiolariak taldearen aldeko elkartasun tonbola egin dute Zaldibarren, eta antolatzaileak pozik agertu dira bertan batutakoagaz. Guztira, 8.260 euro batu dituztela adierazi dute. "Eskerrik asko Zaldibar, eskerrik asko zuen elkartasunagatik" mezua helarazi diete herritarrei. Zaldibarko elkartasun tonbolak 35 urte baino gehiago daramatza martxan. Taldeak denerik bildu ohi du tonbolan; besteak beste, eskuz landutako mantelak, jolasak, antzinako panpinak, koadroak, umeentzako arropak eta txapelak.

Iaz, elkartasun tonbolako hainbat opari lapurtu zituzten, hauek banatu aurretik.

2020KO INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko, kargatu zure argazkia
anboto.org webgunean, otsailaren
21etik otsailaren 28ra arte

Otsailaren 29tik martxoaren 6ra arte
izango duzu bozkatzeko aukera

Webgunean botorik gehien jasotzen
duen argazkiaren egileak
lagun birentzako asteburu-pasa
bat irabaziko du



Lehiaketaren oinarriak www.anboto.org webgunean

 anboto

Aldundiko Foru Agindu baten kontra doala-eta, hainbat mallabitarrek goi-tentsioko argindar lineako lanak geratzeko eskatu dute

Aldundiaren arabera, proiektuak sai zuriaren "abandonu barkagaitza" eragiten du; herritarrek protesta egin dute Areition, obren gunean

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Dagoeneko hasita daude Gueñes (Bizkaia) eta Itsaso (Gipuzkoa) lotuko dituen goi-tentsioko argindar linea egiteko lanak. Red Eléctrica de España 2018ko azaroan jaso zuen baimena Espainiako Ministro Kontseiluaren eskutik, proiektua "interes orokorrekoa" dela argudiatuta. Ibilbidean, Durangaldeko sei herritako lurretatik igaroko da: Zornotza, Iurreta, Garai, Berriz, Zaldibar eta Mallabitik. Mallabian begi bistakoak dira lanak Areitio inguruan.

Mallabiko EH Bilduk salatu du lan horiek Bizkaiko Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Foru Agindu bat aintzat hartu barik egiten dabilzala. Aurtengo urtarrileko 422/2020 Foru Aginduan oinarritzen da hori esateko. Goi-tentsioko lineak, beste betekizun batzuen artean, ingurumena babesteko baldintzak bete behar ditu, eta Aldundiak, bere eskumena den heinean, aztertu behar du proiektuak errespetatu egiten ote dituen basa espezieen habitatak eta euren biziraupena. Ondorioa ezezkoa da. Hain zuzen ere, sai zuriaren egoera azpimarratzen du, Igorretik Lemoara arteko tarte batean. Proiektuaren ondorioz, "Igorre-Lemoako habiagintza eremuan sai zuriaren abandonu barkagaitza

gertatuko da", dio txostenak. Gogoratzen du, hainbat legeren arabera, espezie hori "kalteberatzat" katalogatuta dagoela. Beraz, Red Eléctrica de España "baimenik ez ematea" jasotzen du ebazpeneko bigarren puntuan.

Alkatetza dekretua, prest

Foru Aginduan oinarrituta, eta auzia argitzen den bitartean, "obrak geratu" egin behar direla deritzo Mallabiko EH Bilduko Aitor Loiolak. Alkateak (EAJ) hori egin dezakeela uste du, dekretu baten bitartez. Ikusita azken asteetan lanak "izugarri arin" egiten dabilzala, ahalik eta arinen eman beharreko urratsa dela dio, eta, prozedura azkartzeko, dagoeneko landu eta aurkeztu dutela dekretu bat udalean. Dekretuak ebazten du obrak itxi aurreko entzunaldi bat ematea Red Eléctrica de España, 15 eguneko epean. "Entzunaldiaren ondoren obrak legez kanpokatzea josten badira, obrak itxi egingo dira", jasotzen du. Igor Agirre alkateak dio aholkulari juridiko batek aztertuko dutela gaia.

Bitartean, herritarrek ere hasi dira mugitzen. Joan zen asteburuan, hainbat mallabitar obren gunera joan eta dorreetarako pista bi itxi zituzten sinbolikoki, baimenik ez dutela-eta argindar lineako lanak bertan behera uzteko eskatzeko.



Mallabitarrek Areition, eraikita dagoen argindar dorre baten ondoan, lanak geratzeko eskatzen.

Iurretako Kimuak aisi elkarteak udaleku bateratuak egingo ditu

Elkarteak belaunaldi aldaketa egingo du, eta, arduren eskualdatze hori baliatuz, taldea eraldatzea erabaki dute. Uztailaren 6tik 20ra bitartean izango dira udalekuak

IURRETA • A. BASAURI

Kimuak elkarteak udaleku bateratuak egingo ditu aurtén. Adin guztietako gazteak bilduko dituzte eta taldearen eraldaketa prozesuaren parte izango dira. Elkarteak belaunaldi aldaketa egingo du, eta, hori baliatuz, taldea eraldatzea erabaki dute, "era eraginkorragoan funtzionatzeko". Denek batera hasiko dituzte udalekuak, Sarrian (Araba), eta Kimuakenez eta hausnarketak partekatuko dituzte. Gero, bakoitzak bere bideari ekingo dio.

Uztailaren 6tik 20ra izango dira udalekuak. Martxoaren 2tik 8ra eman daiteke izena, sarean. Edo martxoaren 6an Goiuria kulturunean, 17:30ean.



Iaz Kimuak elkarteak antolatutako udaleku finko ibiltariaren irudi bat.

URAK eta Izurtzako udalak protokolo bat adostu dute erreka bazterrek zaintzeko

IZURTZA • J.DERTEANO

Erreka bazterrek eta inguruak modu eraginkorragoan zaintzea eta beharrezko konponketak azkartzeko bilatzen duen protokoloa adostu dute Uraren Euskal Agentziak eta Izurtzako Udalak. Akordioaren barruan, zereginak zehaztu eta ordenatu dituzte. Hondatutako erreka bazterren kasuan, esaterako, udalak ingurua garbitu eta prestatuko du, URA agentziak lanak egin ditzan. Izurtzako erreka bazter bitan arazoak daude gaur egun. Esaterako, Arbizolea industrialdean, erreka ondoan dagoen bidegorri zati bat hondatuta dago. Izurtzako beste leku batean, erreka batek lurzuria jan dio bideari, eta inguru hartan ere konponketak egin behar dira.

Mañarian, elikadura osasuntsuari buruzko tailerra eskainiko dute, gazteei zuzenduta

MAÑARIA • J.DERTEANO

Mañariko Udalak elikaduraren gaineko tailer eta berbaldi bana antolatu du martxoan, nutrizioan eta dietetikan aditua den On Ekin taldeagaz elkarlanean. Martxoaren 5ean, 17:30ean, 8tik 14 urtera arteko gazteei zuzendutako *Gosari, hamarretako eta askari osasuntsua* izeneko tailerra eskainiko dute, hiru otorduek duten garrantzia azpimarratzeko. Tailer horretarako izen-ematea otsailaren 24tik 28ra bitartean egin daiteke, udaletxean goizean, eta liburutegian arratsaldean.

Ondoren, martxoaren 23an, 17:30ean, etiketa nutrizionalen gaineko berbaldia eskainiko dute. Izen-ematea martxoaren 9tik 13ra egin daiteke, udaletxean eta liburutegian.



I.G.

Hareek denporak!

17 urte pasatu dira Egunkaria itxi zutenetik

2003ko otsailaren 20an, Guaztia Zibilak Euskaldunon Egunkaria zarratu zuen. Andoaingo Martin Ugalde parkeko egoitzak eta Gasteizko, Iruñeko eta Bilboko ordezkariak ateak itxi zituzten. Xabier Alegria, Txema Auzmendi, Inma Gomila, Luis Goia, Fermin Lazkano, Xabier Oleaga, Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uribe eta Pello Zubiria atxilotu zituzten. Zazpi urte

geroago, auzipetuak absolbitu zituzten.

Euskal Herri osoan, itxiera horren kontrako mobilizazioak antolatu zituzten. Durangoko udaletxearen aurrean jendetza batu zen otsailaren 27an. Gerediagak, AEK-k, Berbarok, ANBOTOk, Kurutzia-gak, Txintxirri eta Ibaizabal ikastolek, EHEk eta Durangoko Udal Euskaltegiak bat egin zuten protestagaz.

Lau hankako mahaia

Juanan
Bueno
EH Bildu



Antzerkia

Teloia jaitsi da, txaloak, zortzi emakume eta gizon bat. Artistak dira, bai, baina ez hori bakarrik... Ostirala, arratsaldeko zazpiak dira, San Agustin Kulturunea beteta eta denok prest gauza magiko bat ikusteko; bai, magikoa, talde hau magikoa da, 3. adinekoen antzerki taldea. Beraien lana, beraien esfortzua, beraien konstantzia konpartitzeko prest. Gainditzea, euren buruarekiko konfiantza, kontzentrazioa, sormena, gorputzaren kontrola eta garrantzitsuenak, talde lana, taldekide izatearen sentimendua. Ekonomikoki eta produktiboki ezertarako balio ez duzula sentitzen duzun mundu batetik, inor ez zarela sentitzen duzun mundu honetatik, zerbaiten parte, lagungarri zarela sentitzera.

Artista hauek dagoenik eta errespeturik handiena merezi dute. Gure nagusiak dira eta ostiralean, bizitza guztian zehar egin duten moduan, eszenatokian erakutsi zuten momentuz asko dutela irakasteko. Eskerrik asko magikoak izateagatik, eskerrik asko bibratzeagatik, eta, batez ere, eskerrik asko hain traumatikoa izan daitekeen erretiroaren ostean bizitza bat dagoela ikusarazteagatik. Gerontologia Sozialaren arabera, nagusiek, adierazpen artistikoari esker, oroimen eta sentimenduak kanpora ateratzen dituzte eta ikusle bakoitzak ere gauza bera sentitzea lortu duzue. Harro sentitu, gu zuetaz harro gaude eta. Oraindik asko daukazue mundu material honi laguntzeko, ez zaudete merkatutik kanpo. Beharrezkoak zarete. Gauza asko erakusten diguzue beti, eta, antzerkian ikusi dugunez, oraindik asko duzue erakusteko. Jarraitu mesedez, irribarre faltan gaude eta. Eskerrik asko!

Durangaldea asteen

1987an Europako mendietan hildako zazpi lagunak merezimendu dominekin bereizi dituzte

Durangaldea | 1987an Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko zazpi kide hil ziren Europako mendietan, helikoptero istripuan, galdutako ume baten bila zebiltzala. Joan zen asteen, jaur-laritzak babes zibilaren arloko bereizgarri gorriko merezimendu dominak eman zizkien eta euren senideek jaso zituzten. Zazpitik lau Durangaldekoak ziren: Lourdes Verdes, Javier Gallastegi eta Luis Angel Diez elorriarrak eta Joseba Zabala garaitarra.



Berrizen batutako 1.381 produktu bidaliko dituzte Saharako kanpamentuetara

Berriz | Azken hile hauetan, Berrizen produktuak batzen ibili dira sahararrei laguntzeko, eta, guztira, 1.381 produktu jaso dituzte. Hori dela-eta, antolatzaileek eskerrak eman dizkiete bilketetan parte hartu duten herritarrei, eta, bereziki, Emakumeen Elkarteari, Caritasi, Ikastetxeei, Guraso Elkarteari, udalari eta hirugarren adineko elkarteari. Udalak 1.500 euro ipiniko ditu egitasmoari laguntzeko, ohar batean azaldu dutenez.



Metalgintzako grebaren harira, Ermuko hiru gaztek deklaratu dute Durangon

Durango | Iazko ekainean, metalgintzako grebaren harira, Ermuko hiru gazte identifikatu zituzten Mallabiko Goitondo industrialdean. Hiru gazteek atzo deklaratu zuten Durangoko epaitegian. Metalgintzako langileek deituta, elkarretaratzea egin zuten epaitegi aurrean gazteei babesa erakusteko. CCOO, UGT, LAB, ESK eta ELA sindikatuetakordekariak ere izan ziren. Aurretik beste hiru lagunek ere deklaratu dute Durangon metalgintzako greban gertatutako liskarregatik.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO • TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA • TEL.: 946 308 722



Otsailaren 20tik
25era

ABADIÑO lehiaketa
Taberna Mozorrotuen
V. Txapelketa. Gaia: Hawai.

Otsailaren
21ean

ABADIÑO musika
Disko festa + talo
tailerra, 17:00etan, Traña-
Matienako frontoian. Traña-
Matiena eskolako Guraso
Elkarteak antolatuta.

BERRIZ kalejira
Mozorro kalejira,
11:00etan. Gero, eskolako
ikasleen emanaldia,
Berrizburu kiroldegian.
Trena, 12:00etatik
13:30era, Olakuetatik
Elizondoraino. Itzulera,
16:30etik 19:30era.
Euskal disko festa,
18:30ean, frontoian.
Ondoren, **txokolatea.**

GARAI kalejira
Mozorro kalejira,
18:30ean, frontoian. Gero,
kopaua. Trumoitte kultur
elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA pailazoak
‘Bizi dantza’ (Pirritx,
Porrotx eta Marimotots
+ Udabarri taldea),
17:15ean eta 19:15ean,
Zornotza Aretoan.
Perubeleren aurkezpena,
19:00etan, Zelaieta
parkean. Batukada eta
Udazken taldeko gaiteroak.
Sagardoa + txorizoa,
19:30ean, Zelaieta parkean.
(karpan).
Altza Porru, 20:00etan.

Otsailaren 22an

ABADIÑO bazkaria
Haur jolasak, 11:00etan,
Matienako Traña plazan.
Bazkari autogestionatua,
14:30ean, probalekuan.
Gero, **Dantzateke**
ikuskizuna, 16:00etan.
The Mackensy’s Clan
Band, 17:30ean, Zelaietan.
Dj KI + tostadak,
18:30ean, Traña plazan. 500
tostada banatuko dituzte.

BERRIZ kuadrilla jaitsiera
Kuadrillen topaketa,
18:30ean, Berrizburu
kiroldegiaren aurreko
plazan (euria bada,
probalekuan). Ondoren,
kuadrillen jaitsiera,
Triki pandero Scottis Band
taldeak lagunduta.
Mozorro afari herrikoia,
21:00etan, frontoian.
Erromeria: Dj Robert.
Mozorro lehiaketako sari
banaketa, 23:59an.

DURANGO musika
Surrandi goiztiarrak
trikitilariekin, 12:00etan.
Kalejira Urolatarrak
fanfarreagaz, 12:30ean,
Alde Zaharretik.
Haur parkea, 17:00etatik
20:00etara, Landako Gunean.
Surrandien eta Hartzaren
konpartsaren kalejira,
txistulariekin, trikitilariekin
eta bandagaz, 18:30ean,
Merkatu plazatik abiatuta.
Txokolatada, 20:00etan,
Andra Mariko elizpean.
Kriskitin dantza taldeak,
Jaizale Txistulari Elkarateak
eta Tabira Musika Bandak
antolatuta.
Erromeria: Luhartz,
20:30ean, Sasikoa kalean.
Dj Jaia: Danny Meip,
Gorka Perez eta Gato,
22:00etatik 01:30era,
Andra Mariko elizpean.
Mozorro lehiaketa ere
egingo da. Alde Zaharreko
tabernarien elkarateak
antolatuta.

IURRETA bazkaria
Hamaiketakoa plazan,
11:30ean, plazan
(bakoitzak berea eraman
behar du).
Kalejira Sama Siku
txarangagaz, 12:00etan,
Aita San Migel plazan
hasita herrigunean zehar.
Ondoren, sari banaketa.
Herri bazkaria, 15:00etan.
Kittu taldea, 17:00etan.

MALLABIA erromeria
Mozorro erromeria Sukar
taldeagaz, 19:30etik
22:30era, parkean.

OTXANDIO kalejira
Topaketa, 13:00ean,
Gaztetxean. Ondoren,
kalejira mozorrotuta.
Txupina, 13:15ean,
udaletxetik.
Bazkaria, 14:30ean,
Mainondon.
Dj gaubela, 18:00etan.
Txokolatea, 19:30ean.

ZALDIBAR musika
Bazkari autogestionatua,
kiroldegian.
Dantzaokea: Xaibor,
17:00etan, udaletxe
plazan (euria bada,
kiroldegian).

ZORNOTZA dantza
Inauteri dantzak
Udabarri dantza
taldeagaz, 13:00etan,
herritik zehar.
Zirkun Zirko umeentzako
ikuskizuna, 17:00etan,
Zelaieta parkean (karpan).
‘Pinocchio’ (Gorakada)
ikuskizuna, 18:00etan,
Zornotza Aretoan.
Zornotzako Musika
Banda, 19:00etan:
Zelaietako Kioskoan, Zezilia
Gallartzagaitia kalean,
Andra Mari plazan eta
Gernika plazan.
Dj Festa: Dj Txurru,
20:00etan, Zelaieta
parkean (karpan).
Kaleko musika: Sambalu
Aye, 21:00etan, Luis
Urrengoetxea kalean.
Bertan, egun guztian zehar,
mozorro lehiaketa. Gaia:
Disney. LUTABER elkarateak
antolatuta

Otsailaren 23an

DURANGO txistulariak
Musika eskolako
txistularien kalejira,
12:30ean.
Haur parkea, 17:00etatik
20:00etara, Landako
Gunean.
Gangar proba, 18:00etan:
Facunflez, Halexid eta
Julen, Plateruenan.
Arantza eta Pantxo,
18:00etan, Andra Mariko
elizpean.

MAÑARIA ikuskizuna
‘Gora Kasete’ (Eidabe),
17:30ean, plazan.
Txokolatada, 18:30ean,

ZORNOTZA ikuskizuna
Zirika Zirkus ikuskizuna,
17:00etan, Zelaieta
parkean (karpan).

Otsailaren 24an

ZORNOTZA musika
Dj Markelin, 19:30ean,
Zelaieta zentroko kontzertu
gelan.

Otsailaren
25ean

ABADIÑO musika
Disko eroa, 15:00etan,
Zelaietako frontoian.
Zelaieta herri eskolako
Guraso Elkarateak
antolatuta.
ATXONDO jolasak
Eskulan tailerra eta
jolasak, 17:00etan,
frontoian.
Txokolate beroa,
18:30ean.

DURANGO musika
Haur parkea, 16:00etatik
20:00etara, Landako
Gunean. Tailerrak egongo
dira Denboraren Bankuaren
eskutik, eta tren txu-txu-a
ere bai.
Gazte diskoteka:
Oihan Vega, 16:30etik
19:30era, Andra Mariko
elizpean. Gazteentzako
tailerrak ere egongo dira:
amets harrapatzaileak eta
makillaje artistikoa.

ELORRIO musika
Eskola umeen dantzak,
10:30ean, plazan.
Larima disko festa,
11:30etik 13:00era.
Umeentzako parkea,
10:30etik 13:30era eta
16:30etik 18:30era.
Txokolatea, 18:15ean.
Erromeria: Luhartz,
18:30ean. Euria eginez
gero, ekitaldi guztiak Hilario
Azkarate frontoian izango
dira.

IURRETA musika
Dj Ainhua, 18:00etan,
Dantzari plazan.

MALLABIA musika
Tor Magoa, 14:30etik
16:00etara, eskolan.
Txokolatada, 16:30ean,
frontoian, udalak eta
Guraso Elkarateak
antolatuta.
Erromeria Ein Go
taldeagaz, 16:30etik
20:30era, frontoian.
Playback-mozorro
lehiaketa, 18:30ean
(izena ematea egunean
bertan, frontoian, 16:30etik
17:30era).

ZALDIBAR diskofesta
Diskofesta: Dantatzeko
prest!, 16:30ean,
udaletxeko plazan.
Mozorro lehiaketa +
tostadak eta txokolatea
ere bai (euria bada,
kiroldegian).

ZORNOTZA musika
‘Antzar rockeroak’
ikuskizuna, 17:30ean,
Zelaieta parkean (karpan).
Ondoren,
txokolatea, 18:30ean.
Perubeleren agurra,
19:00etan, Zelaieta
parkean. Batukadak
Udazken taldeko gaiteroek
girotuta.
Dj Pako, 18:30ean,
Zelaieta parkean (karpan).

Ezberdin izateari beldurrik ez izatera gonbita, 'Kaskarot' ikuskizunaren eskutik

ANTZERKIA | Gizarte distopiko batean kokatzen da ATX teatroaren *Kaskarot* antzezlanak. Dantzatzea debekatuta dagoen gizarte batean bizi da Aner. Baina Anderri izugarri gustatzen zaio dantzan egitea, eta horrek arazo larriak sortzen dizkio. Kaskarot alter egoa sortuko du

eta honek egoerari buelta ematen lagunduko dio, asmamena eta zentzua erabilita. Arauen aurrean, adierazpen askatasuna lehenetsiko du. ATX teatrotik Arriola antzokian taularatuko du familia osoarentzako *Kaskarot* ikuskizuna, zapatuan, 17:00etan.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Otsailaren 21ean

DURANGO musika
Dj Jesus Morillo,
22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

IURRETA antzerkia
'Pronoia' (Virginia Imaz),
19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Otsailaren 22an

ELORRIO urteurrena
Elorrixoko Gaztetxearen
32. urteurrena:
Olinpiadak, 11:30ean, plazan.
Trikipoteoa, 13:00ean.
Omenaldia + argazkia,
14:15ean, San Josen.
Bazkaria, 18:30ean, gaztetxean.
Txabolakumeak + Aizkorak Zorroztu & The Mia Wallace Band + Etxeko dj-ak + Jkin Alonso, 22:30ean, gaztetxean.

Otsailaren 23an

DURANGO erakusketa
'Aztarnak denboran zehar' (Maria Jesus Cuetoaren artelanak)
erakusketa ikusteko bisita gidatua, 12:00etan, Durangoko Arte eta Historia Museoa. Artegitza eginiko 40 urtetik gorako ibilbidean (1979tik 2019ra) sorturiko artelanak batzen ditu erakusketak.

Otsailaren 24an

ZALDIBAR jardunaldia
Familientzako Elikadura Eskola: 'Zer jaten dute gure seme-alabek jantokian?'
jardunaldia, 17:30etik 19:00etara Zaldibarko herri ikastetxean. Durangaldeko Berton Bertokoa dinamika antolatu du jardunaldia.

Otsailaren 26an

DURANGO berbaldia
'Poesia eta musika' izenburupean berbaldia, 19:00etan, Bizenta Mogel herri bibliotekan. Hizlaria: Ana Cecilia Ormaetxea.

IURRETA berbaldia
'Las criadas y los testamentos' berbaldia, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Hizlaria: Josune Muñoz (Skolastika). 'El cuento de la criada' liburua idatzi zuen Margaret Atwoodi buruz antolatutako zikloaren barruan. Liburutegiak antolatu du, Gizarte Ongizate Sailagaz elkarlanean.

Otsailaren 27an

BERRIZ musika
'The tales people tell' (Kelly Finnigan & The Atonemets), 22:00etan, Kultur Etxean.

Otsailaren 28an

BERRIZ antzerkia
'Kaskarot' (Atx Teatro), 18:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia
'Ene Ba' (Txalo Teatro), 20:30ean, Arriola antzokian.

Otsailaren 28ra bitartean

ELORRIO erakusketa
'Arima hondartua' (Jon Rodriguez Bilbaoren argazkiak), Iturri kultur etxean.

Martxoaren 6ra arte

IURRETA erakusketa
'El arte de mirar' (Susana Garcia de Vicuña), Oreka tabernan. Hamar argazkiz osatutako erretratu saila.

Otsaileko agenda



21

MINTZOAN KUX-KUX
Irakurketa kluba
17:00 3 - 4 urtekoak / 18:00 5 - 7 urtekoak
UIUGAZTE
17:00 Futbolin txapelketa
KULTURA SAILA / IBARRETXE KULTUR ETXEA
19:00 Antzerkia: 'Pronoia' Virginia Imaz gonbidapenagaz

22

ZAPATU KARNABAL
11:30 Plazan hamaiketako (Bakoitzak berea)
12:00 Kalejira plazarik. Kaskoan zehar Sama Siku txaranga (sariak egongo dira)
15:00 Herri bazkaria
17:00 Kittu musika taldea

23

OLABURU FRONTOIAN
16:30-20:00 Igaudeetan zabalik!

24

ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA
18:30 Zoru pelbikoa kurtsoaren hasiera



Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Volando juntos**
zapatua 23: 18:15

:: Durango - ZUGAZA

• **Parásitos**
barikua 21: 19:30/22:00
zapatua 22: 19:30 /22:30
domeka 23: 19:30
astelehena 24: 18:30/21:00
martitzena 25: 20:00
eguaztena 26: 20:00
• **La llamada de lo salvaje**
barikua 21: 19:30/22:00
zapatua 22: 17:00/19:30/22:30
domeka 23: 18:00/20:30
astelehena 24: 18:30/21:00
martitzena 25: 20:00
eguaztena 26: 20:00
• **Queen & Slim**
zapatua 21: 19:30/22:00
zapatua 22: 19:30/22:30
domeka 23: 18:00/20:30
astelehena 24: 18:30/21:00
martitzena 25: 20:00
eguaztena 26: 20:00
• **Sonic**
zapatua 22: 17:00
domeka 23: 17:00

:: Elorrio - ARRIOLA

• **Jojo rabbit**
zapatua 22: 22:00
domeka 23: 20:00
astelehena 24: 20:00

:: Zornotza - ARETOA

• **Basque Selfie**
zapatua 22: 22:00
• **Judy**
domeka 23: 20:00
astelehena 24: 20:15
• **Maia erlea**
domeka 23: 17:00

“Museoak leku elitistatzat hartzen dira, eta apurtu egin behar da 'Ez dut artea ulertzen, beraz, ez noa' pentsaeragaz”

Urte biko obren ondoren, Historia aretoak ateak zabaldu ditu; laz, Durangoko Arte eta Historia Museoak 2018an baino %20 bisita gehiago jaso zituen



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Arte eta Historia Museoaren zuzendaria
Berriz | 1984

Sona handiko artisten obrak ekarri dituzu Durangora. Zirkuitu batean ere sartu da museoak. Elkarlan hori gakoa da museoaren jardunerako?
Gatxa da denerik egitea, urtebete epea labor geratzen delako. Izen handiko artistak, hasiberriak, bertakoak, ibilbide luzeak... Gatxa da denerik egitea, baina ahalegintzen gara. Urtean behin edo birritan, museoan horrelako erakusketak egitea

“**Ikastetxeekin hartu-eman estuagoa edukitzea gura nuke, eta ez Durangokoekin bakarrik**”

gustatuko litzaidake. Ez bakarrik bertako jendea etortzeko, baizik eta kanpotik ere erakartzeko. Adibidez, Dürerren erakusketara Donostiako eta Tolosako jendea etorri zen. Hori da gura dudana, Durango erreferentziatzeko bilakatzea. Hori ezin dugu urte osoan zehar egin, baina urtean behin edo birritan bai. Eta urtean zehar bertako artistak, ez hain ezagunak... Ez da erraza, baina ahalegintzen gara.

Zeintzuk dituzue etorkizuneko erronkak?

Ikastetxeekin hartu-eman estuagoa edukitzea gura nuke, Durangokoekin zein Durangaldekoekin; haiek ere erreferentziatzeko museo lez ikustea gura dugu. Hirietan oso barneratuta dute museoak joan behar diren beste leku bat direla. Durangaldean ere horrela izatea gura nuke.

Bestalde, artistentzat ere erreferentziatzeko izatea gura nuke. Hein batean, lortu dugu hori, artistek oso gustuko dituzten ezaguriak biltzen ditugu eta. Jende askok bidali dizkigu eskaerak, bertan eduki ditugun artistengatik eta lekua ere oso ondo dagokelako. Baina, esan duan moduan, batez ere Durangoko jendeak ezagutzea gura dut.

ARTEA • ARITZ MALDONADO

2016an zuzendari kargua hartu zuenetik, Garazi Arrizabalaga estilo propioa eman guran aritu da Durangoko Arte eta Historia Museoan. Urte biko lanen ondoren, Historia aretoa zabaldu dute aste honetan. Honela, San Agustinaldeko eraikina guztiz eraberrituta geratu da. Lehenengo egunetik, Durangaldeko erreferentziatzeko gune artistiko eta kulturala izateko pausoak ematen jarraitzen du museoak.

Hiru urte eta erdi daramatzazu zuzendari. Zein balantze egiten duzu?
Nire nahia, batez ere, jendeak museoak existitzen dela jakitea da. Eta modu bakarria dago hori lortzeko: jendearentzat ekintzak egitea. Bisita gidatuak, tailerrak eta abar egitea, esate baterako. Horrek asko lagundu digu museoaren jendearengana hurbiltzeko. Horrelako ekitaldiak egitea garrantzitsua da bertako jendea ekartzeko. Umeak ekartzea ere

oso garrantzitsua da, eta ez da horrelakorik egin orain artean.

Historiako areto hau berritzea ere oso garrantzitsua da. 1986an zabaldu zen, eta ordutik hona oso aldaketa txikiak egin dira bertan. Museologia ikasi eta gero, ikasitakoa ez dela aplikatzen ikusten duzu, eta begien bistakoa zen aldaketa bat beharrezkoa zela, museologikoki beste gauza bat behar zela. Museo bat egitea ez da objektuak ipintzea bakarrik. Museotik zerbait ikasita irten behar da, ez bakarrik zerbait ikusita. Horregatik, gela berri honetan objektuak eta informazioa daude.

Obrak ezagutzeaz gainera, ahalegin berezia egin duzu artistak herritarrei hurbiltzeko.

Artista asko etorri dira Durangora bere obra azaltzera, eta horrek beste gertutasun bat dakar. Askotan, museoak leku elitistatzat hartzen dira, edonor sartu ezin den lekutzat. 'Arteak ulertzen ez

dudanez, ez noa' pentsaera hori apurtu egin behar da, aurre egin behar zaio. Ulertzen ez baduzu ere, etorri. Beharbada ez da zertan ulertu, nahikoa da gozatzegaz. Etorri, ikusi eta gozatu. Etorriz gero, artistari galdetzeko aukera izango duzu, ea zergatik egin duen horrela edo dena delakoa. Horrela jakiten dira gauzak.

“**Umeak museoan ekartzea oso garrantzitsua da, eta horrelakorik ez da egin orain artean**”

Museoa elementu "bizia" dela diozu, eta herriko beste gune batzuetara ere zabaldu duzu, igerilekura esate baterako.

Bai, eta gure asmoa are eta gehiago zabaltzea da. Esate batera-

ko, Bizenta Mogel bibliotekagaz ekintzak egiten ditugu elkarlanean. Museoak elementu bizi bat izatea gura dugu; beste hainbat elkartegaz batera lan egitea litzateke onena, sare bat osatzea Durangon bertan.

ANBOTOKo kolaborazioetarako batean idatzi zenuen museoak ez dela 13tik 25 urtera arteko gazteengana heltzen. Zelan konpondu daiteke hori?

Horixe da gatzena, eta ez da gure arazoa bakarrik, orokorragoa da. San Agustin kulturgunean eta bibliotekan ere halatsu gertatzen da. Denoi kostatzen zaigu adin tarte horretakoak erakartzeko. Adibidez, kontzertu bat antolatzea interesgarria iruditzen zait gazte horiengana heltzeko. Horixe egin genuen Daliren inaugurazioan, eta inoiz baino gazte gehiago etorri ziren. Izan daiteke modu bat, gero beste norabaitera eramango gaituena. Dena dela, adi gaude, zer behar duten ikusteko.

Garazi Arrizabalaga, museoaren zuzendaria.

“Naturaltasunez irten du denak; pare bat entsegu egin eta gero, gogotsu gaude”

Urteetako etenaldiaren ondoren, Elorrioko Txabolakumeak taula gainera itzuliko dira; gaztetxean izango da, zapatuan

MUSIKA • A.M.

Paul Urigoitiak (gitarra eta ahotsa), Pablo Valverdek (baxua eta ahotsa) eta Unai Arregik (bateria) nerabetan ekin zioten zarata ateratzeari Txabolakumeak taldeagaz. Urte batzuetako isilunearen ondoren, kontzertua eskainiko dute Elorrioko gaztetxean, honen urteurrenaren harira. Gaztetxeko kideek egun osoko ospakizuna prestatu dute. Goizean olinpiadak egingo dituzte, plazan. Gero, trikipoteoa eta urteroko argazkia egingo dituzte. Bazkalostean musikaren txanda helduko da: arratsaldean Kilimak talde gipuzkoarrak kontzertua eskainiko du, 18:30ean. Gauean, 22:30ean, Aizkorak Zorroztu & The Mia Wallace Band, etxeko DJak eta Jkin Alonso arituko dira. Txabolakumeak taldearen ondoren igoko dira gaztetxeko oholtza gainera.

Zelan irten zuen kontzertua jotzeko aukera honek?

Naturaltasunez irten zuen. Lokale-ra joan ginen, egun pare batean, eta nahiko ondo aritu ginen. Gogotsu geunden. Itzultzekoak ginela zabaldu zen Elorrion, eta, gero, gaztetxetik deitu ziguten. Aukera ona iruditu zitzaigun eta esker oneko gaude. **Zelakoak izan ziren sorrerako sasoia?**

Paulen aititak San Antonen zeukan

txabolan hasi ginen entseatzen, eta hortik dator kigu izena. Hantxe hasi ginen zarata ateratzen. Apurka-apurka animatzen joan ginen, eta Bi Kale tabernan eskaini genuen lehenengo kontzertua, Elorrion bertan. Gero, maketatxo bat grabatu genuen, gure lau abestigaz eta Parabellum taldearen *Envenenado* abestiagaz. 2012ko maiatzaren 12an, Elorrioko gaztetxean aurkeztu genuen. 2014an jotzeari utzi genion, eta orain arte alboratuta eduki dugu taldea.

“

Hurbileko taldeen bertsioak ere prestatu ditugu, besteak beste, MCD eta Arkada Social taldeenak”

■

Eta zapatukoaren ondoren, zer?

Ez dakigu zein izango den plana. Kontzertu pare bat gehiago joko ditugu, eta aurrerago, ba, batek daki. Beharbada abesti berriak sortuko ditugu eta zerbait grabatu, baina oraindik ez dakigu. Ateak zabalik utziko ditugu. Orain lehen



baino baliabide gehiago ditugu, eta horrek ere laguntzen du. Hasieran autorik ere ez geneukan kontzertuetara joateko. Gurasoekin edo lagun nagusiagoekin joan behar izaten genuen, pentsa zein gazteak ginen!

Punk rockagaz jarraitzen duzue?

Bai, joko ditugun bertsioak ere ildo horretakoak dira. Hurbileko taldeen bertsioak ere prestatu ditugu. Sala Strummer arrasatearragaz grabatu genuen maketa, eta bere abestietariko bat

“

Kontzertu berezia izatea gura dugu, gure hurbilekoekin eta ezagutzen ditugun abestiekin”

■

bertsionatuko dugu. Berak ere asko lagundu eta animatu gintuen. Guztira, hamasei abesti joko ditugu.

Errepertorio luzea, beraz.

Bai, kostatu zitzaigun zein abesti

jo eta zein ez erabakitzea (barrez). Maketako abestiak prestatu ditugu, eta gainerakoak bertsioak izango dira. Esate baterako, MCDren *Todo por nada* joko dugu. Bere sasoian, eurekin jotzeko aukera izan genuen, Arrasaten. Arrasateko Arkada Social taldearen abesti bat ere joko dugu. Gaur egun jotzen ez duten talde ezagunen kantuek ere joko ditugu. Kontzertu berezi bat izatea gura dugu, Elorrion, gure hurbilekoekin, eta denok ezagutzen ditugun abestiekin.

Kelly Finnigan musikariak kontzertua eskainiko du Berrizen, Atonements-egaz

MUSIKA • A.M.

Berrizko Kultur Etxeak Kelly Finnigan musikari estatubatuarren bisita jasoko du datorren astean. *The tales people tell* diskoa aurkezttera dator Finnigan. Abeslaria ez ezik, konpositorea eta ekoizlea ere bada. Otsailaren 27an izango da kontzertua, eguenean, 22:00etan.

Finniganek Atonements taldeko kideen laguntza izango du oholtza gainean. European bira egingen ari da orain, *The tales people tell*


Otsailaren 7an izango da kontzertua, Berrizko Kultur Etxean; 22:00etan hasiko da

Hip hopean eman zituen lehenengo urratsak; orain, oster, soul doinuak jorratzen ditu

diskoa aurkezteko. Besteak beste, Alemanian eta Frantzian aritu da egunotan. Berriztik Zaragozara (Espainia) joango da.

Hastapenak hip hopean

Kelly Finnigan aurpegi askoko artista da, izan ere, soul doinueta murgildu aurretik, hip hopean eman zituen lehenengo urratsak. Horrela, AEBtako mendebaldeko kostaldeko taldeentzat oinarria egiten hasi zen, Destruments ekoizpen taldeko kide lez.



Kelly Finnigan.

Sarrera guztiak salduta, 40 Minutu Rock elkartasun jaialdiaren edizio berria aurkeztu dute

Durangon egiten den elkartasun jaialdiak seigarren edizioa du aurtengoa; Landakon egingo da, otsailaren 29an

MUSIKA • A.M.

Beste urte batez, elkartasun uholde batek Landako Gunea hartuko du. 40 Minutu Rock jaialdia otsailaren 29an egingo da. Elkartasun jaialdiak seigarren edizioa beteko du aurtun, eta sarrera guztiak salduta, "pozik" agertu dira antolatzaileak. "Itzela da milaka lagunek elkartasunez lepo betetzea Landako", esan dute. Antolatzaileek boluntarioen lana ere nabarmendu gura izan dute; guztira, 500 lagunek baino gehiagok egiten dute lan ekimean urtero.

Ohi den lez, deneriko doinuak gozatzeko moduan egongo dira Landako Gunera doazen musika-zaleek: aurtengo protagonistak hip hop, trap eta oi! doinuak izango dira, batez ere. Talde hasiberriez gainera, ibilbide luzeko taldeak ere arituko dira.

Hamazazpi artista Landakon

Jaialdiak ohiko formatua berreskuratu du seigarren edizio honetarako. 10:30ean zabalduko dituzte

Landakoko ateak, eta, hortik aurrera, musikak hartuko du gunea. Tximeleta izango da lehenengo taldea, eta euren ondoren talde hauek igoko dira oholtzara: Skakeitan, Rotten XIII, Soziedad Alkoholika, The

Potes, Mafalda, Kaleko Urdangak, Tremenda Jauria, Arkada Social, Green Valley eta Tribade. Mocker's talde durangarra ere oholtza nagusian arituko da, *Oreka Ahula* lana aurkezten.

Karpa txikiko protagonistak doinu "urbanoak" izango dira. Bertan, Aiala&Mudo, Belardi Rockers, Elepunto, Nikotina&Little Martin Seletah eta Klag Klub taldeek joko dute.



Etzerateko eta 40MR-ko kideak.

'Bizi Dantza' umeentzako emanaldiaren saio bi eskainiko dituzte Zornotzan

Gaur izango dira ekitaldi biak, otsailak 21; lehenengoa 17:15ean, eta bigarrena 19:15ean



Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

ANTZERKIA • A.M.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Aiora Zulaika, Joxemari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez, hurrenez hurren) hirukoteak Durangaldeko beste areto bat beteko du. Hain zuzen ere, gaur Zornotza Aretoan eskainiko dute *Bizi Dantza* emanaldia, saio bitan. Lehenengo saioa 17:15ean izango da, eta bigarrena 19:15ean. Sarrera guztiak salduta daude dagoeneko. Aurretik, Berri-zen eta Durangon ere egon dira euren ikuskizun berria aurkezten.

"*Bizi Dantza* ikuskizuna barruko animalia ateratzeko dei bat da, zatoz dantzara!", diote antolatzaileek. Liburu-KD berri honek *Irri Dantza* atala ere badu bere barruan.

Gai librean

Ainhoa
Urien Telletxe
Idazlea



UTOPIA vs ERREALITATEA

Zaldibarko zabortegea autopista gainera amildu zenetik hamabost egun pasatu dira, eta oraindik ere nahasmenez, informazio faltaz eta arduragabekiaz kutsatutako kea arnasten jarraitzen dugu.

Amesgaiztoak, baina, amets egitera eraman nau. Etorkizun posible bat irudikatu dut, horrela suertatzea zaila izango den gertaeren multzo bat osatu: Eitzaga auzoko gertakariak Euskal Herria astindu du, eta pitzadurak eragin ditu egitura solidoetan. Informazio zehatz eta gardenak hasi dira iristen, bakoitzak bere gain hartu ditu ardura eta erantzukizunak; tantaka iristen dira dimisioak, eta epaiketa batek horrelako egoera batean lortu daitekeen justiziarik justuena lortzen du. Apurka bada ere, badoa herritarrok hain ozen eskatzen duguna betetzen: "Zaldibar argitu".

Gero, ilunetik argira datoz gure eguneroko praktiken inguruko autokritikak: zenbat zabor sortzen dugu? Alferrika-ko zenbat hondakin? Horrela, gure azken urteetako jitea aldatzen hasten da: "janaria igo, zaborra jaitsi" dinamika albo batera uztea lortu dugu.

Diotenez, utopiek bidean aurrera egiteko balio dute, eta horregatik beharrezkoa da halakoak sortzea. Horregatik egin dut amets amesgaiztoaren erdian. Hala ere, oraingoz, benetako lehenetsunak ez dira bete, eta orainari eta errealtateari erreparatzea dagokigu: pertsona bi aurkitzeke daude eta Zaldibarrek ilunduta jarraitzen du. Jendarte baten historia sortzen eta kudeatzen duen zaborraren arabera kontatu daiteke, eta gureari, zati bati behinik behin, kiratsa dario.

Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian



Ostalaritza gida

anboto

Iurreta

GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

Durango

OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

Durango

MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

Abadiño

ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Durango

PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!





Oier Ardanza
Bernaola
Gran Canaria saskibaloia
klubeko jokalaria
Durango | 2001

“Konturatzen naiz nirea ez dela 18 urteko mutil baten ohiko bizimodua”

Gazte durangarra Europako txapelkun geratu zen joan zen udan; ACBko Gran Canaria klubeko filialean dabil gaur egun

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

14 urte zituenetik, etxetik kanpora dabil Oier Ardanza saskibaloiko promesa gaztea. La Masian hiru urte eman zituen, Bartzelonako gazteen taldeetan. Han asko luzatu zen (1,98 metro garai da), eta joko antolatzaile izatetik hegaleko jokalaria izatera pasatu zen. Lesio gaizto bat gaindituta, Herbalife Gran Canaria klubera joan zen orain urte bi, eta han dabil harrezkero, talde filialean.

Gran Canariara heldu zinenean junior adina zenuen, baina nagusiekin aritu zinen EBA maila exigientearen. Talde baten baino gehiagotan egokitu zaizu adin nagusiagokoen kontra aritzea. Zer abantaila eta desabantaila ditu? Iaz EBA mailan eta aurreko Zilarrezko Ligan, jokalaria beteranoak aurkitu ditugu, eta denak oso onak. Badakite zelan mugitu, gorputza zelan erabili... Denek dute guk baino gorputz sendoagoa. Beraz, desabantaila horregaz aurkaria baino hobea zelan izan asmatzea da gure lana. Ez da erronka erraza, baina, modu horretara, askoz gehiago ikasten da.
Kirol talde guztietako filialak talentudun gaztez beteta daude. Zelan ikasten da egoa gobernatzen?

Alde horretatik, zorte handia izan dut. Etxean beti erakutsi didate umiltasunez jokatzeko, besteak

errespetatzen eta helburuak lortzeko asko ahalegindu beharra dagoela garbi izaten. Konturatzen naiz nirea ez dela 18 urteko mutil baten ohiko bizimodua. Urte batzuk daramatzat etxetik kanpora, sarritan goiz eta arratsalde entrenatzen naiz... Baina, bueno, kontziente naiz nire errealitateaz. Eta gurasoek asko lagundu didate hori guztia kudeatzeko. Etxean erakutsi didatena aplikatzen dut.

Lehenengo taldea ACB ligan dabil eta egunotan eurekin entrenatzen zabilta.

Bai. Goizetan eurekin eta arratsaldetan ohiko taldeagaz. Kontua da egunotan lau-bost jokalaria euren selekzioekin dabilzala. Ondorioz, jokalariai behar dituzte entrenamenduetarako, eta guri deitzen digute. Laguntzera joaten gara.

Laguntzera, bai, baina norbere burua luzitzeko aukera badago...

Jakina, lan ona egin eta entrenatzailea pozik geratzen bada, askoz hobeto. Dena dela, entrenatzaileak bestela ere jarraitzen die gure entrenamenduei.

Arlo pertsonalean, zelan doa denboraldia? Gura beste jokatzeko zabilta?

Iaz asko jokatu nuen, baina aurreko ez hainbeste. Hala ere, nire adinekoak bakarrik hartzen badituzte kontuan, neu naiz gehien jokatzeko duena. Senior mailako lehenen-

go urtea da denontzat, eta ez da erraza.

Bartzelona klubean ibili zineneko zer gomuta dituzu?

Kadeteetako urte bi eta juniorretako bat eman nituen han. Oso gomuta onak ditut, lesionatu nintzen arte. Mokorreko lesio arraro bat izan nuen. Ebakuntza egin zidaten, kadetetik juniorrerako aldaketa eman behar nuen udan. Zortzi hilabete jokatu barik egon nintzen. 17 urteagaz horrelako zerbait bizitzea gogorra da. Baina, tira, bizitzako

“Etxean beti erakutsi didate umiltasunez jokatzeko eta besteak errespetatzen; alde horretatik, zorte handia izan dut”

ikasgai baten moduan hartzen dut. Denboraldi hori amaitzean joan nintzen Gran Canariara.

Joan zen udan, Europako txapelketa irabazi zenuen Espainiako selekzioagaz, eta, gainera, finalean protagonista izan zinen.

Egia esanda, txapelketan zehar ez nuen askorik jokatu. Baina, finalean, puntu gutxiko partiduan,

sartu egin ninduten, eta, azken txanpan, taldearen zazpi puntuetatik sei sartu nituen. Oso momentu polita izan zen, bai.

Tabirakon eman zenituen lehenengo urratsak. Jarraitzen diozu bere ibilerari?

Bai, jakina. Aurreko EBA mailan dabilta, gainera. Lagunak ditut han. Astebururo begiratzen dut zer egin duen, edo gurasoek esaten didate, partiduetan ikustera joaten dira eta. Arrebak Tabirakoren talde nagusian jokatzeko du eta aita ere urte askoan izan zen Tabirakoko jokalaria. Gure kluba da, betidanik sentitu dudana taldea, eta berezia da guretzat.

Kobe Bryant-en heriotzak saskibaloia mundua astindu du oraintsu. Zure erreferenteetarikoa bat zen?

Erreferentea, bai, baina ez erreferentea bat ere. Ez dut horrelakorik. Baina inpaktu handiko albisteak izan zen denontzat. Gogoan dut esan zidaten unea. Bartzelonan jokatzeko partidu batetik bueltan, hegazkinean nengoan, eta aireratzera gindoazela amak mezu bat bidali zidan albisteak emateko. Gezurra zela pentsatu genuen, baina nik eta baita nire taldekideek ere. Hegazkina aireratu zenean ezin genuen mugikorra erabili eta ezin izan genuen egiaztatu heldu arte. Orduan konfirmatu genuen.



Hiru urtean Bartzelonan aritu zen.



Bigarren urtea darama Gran Canarian.



Ardanza, Europako txapelketan.

Aizkoran eta harrijasotzen, Gisasola eta Magunazelaia final handien atarian daude

Martxoaren 7an, Azpeitiko finaletan txapela janzteko aukera dute batak zein besteak



Gisasola eta Magunazelaia Oñatiko kanporaketan sailkatu ziren Azpeitiko finalerako.

HERRI KIROLAK • JOSEBA DERTEANO

Herri kirolatan, Durangaldeko kirolari gazte bi zeresana ematen ari dira: Urdax Magunazelaia harrijasotzen eta Ioritz Gisasola, *Zelai IVa*, aizkoran. Bata zein bestea final garrantzitsuen atarian daude.

Magunazelaia 22 urteko abadiñarraren kasua ez sinesteko modukoa da, lorpen berezia delako. Sei urtean harrijasotze mundutik aparte egon eta gero, plazetara itzuli da eta egundoko mailan dabil. Abadiñon, sanblasetan, erakustaldia emanda gainditu zuen kanporaketa bat, eta joan zen asteburuan, Oñatin, Urrezko Harrijasotze Txapelketako finalera sailkatu zen. Martxoaren 7an izango du finala, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan.

Azpeitian egongo da Ioritz Gisasola 22 urteko mallabitarra ere.

Bere kasuan, Urrezko Aizkora Txapelketaren finalean arituko da, 23 urtez azpiko mailan. Binaka lehiatuko da, Suharri Rodriguez hernaniarragaz batera.

Finalean txapela irabazteko aukera ikusten du Gisasolak. "Oñatiko kanporaketaren aurretik, ez nekien ondo zeintzuk ziren gure aukerak, baina denborarik onenagaz sailkatu ginela kontuan hartuta, finala irabazteko aukera dudala uste dut. Jakina, hori

I.Gisasola: "Denborarik onenagaz sailkatu ginela kontuan hartuta, aukera dugu finala irabazteko"

egunean bertan erakutsi beharko dugu", adierazi du.

Gisasolak eta Rodriguezek lehenengo osatu dute bikotea, eta orain arte "oso ondo" elkar hartu dute. Azpimarratzekoa da Rodriguez ematen dabilen maila, kontuan hartu behar baita orain urtebete baino ez zela hasi aizkora txapelketetan parte hartzen. "Indartsua eta txispatsua da", definitu du Gisasolak.

Urteko helburuak

Iazkoa urte bikaina izan zen Gisasolarentzat. Bizkaiko txapelketan lehenengo mailara igo zen eta Euskal Herrikoan hirugarrenetik bigarren mailarako saltoa eman zuen. Aurtengo helburu nagusia mailari eustea izango da, txapelketa batean zein bestean.

Ainhoa Colino, Euskadiko 15 urteko ibiltaririk onena den harribitxi berriztarra

Maila absolutuan Euskadiko txapelduna da eta joan zen asteburuan maila handia erakutsi zuen Espainiako Txapelketan



Ainhoa Colino atleta, proba batean.

ATLETISMOA • J.DERTEANO

Euskadin gaur egun dagoen ibiltaririk onenak 15 urte ditu eta berriztarra da. Ainhoa Colinok (Bidezabal taldea) ahobete hortz utzi zuen atletismo mundua orain hiru asteburu, maila absolutuan Euskadiko Txapelketa irabazi zuenean. Zigilu horregaz joan zen aurreko asteburuan Torrevieján (Alacant) lehiatutako Espainiako txapelketara, eta orduan ere maila handia eman zuen. 18 urtez azpiko mailan, 10 kilometroko distantzian, 12. tokian sailkatu zen, ordura arteko bere markarik onena —Euskadiko txapelketan lortutakoa— hiru minutu baino gehiagotan hobetuz; 56.20-ko den-

boran geratu zuen kronometroa. Azken 15 urteetan euskal atleta batek —maila denak kontuan hartuta— egindako denborarik onena da. Beste datu bat ere kon-

Alacaten lehiatutako txapelketa 13. tokian amaitu zuen ordura arteko bere marka hobetuz

tuan hartzekoa da: Espainiako txapelketan bere aurretik amaitu zutenen erdiak, hamabitik sei, Colino baino urtebete nagusiagoak ziren.

Asteko kirolaria



GARTZEN ELEJABARRIETA URTIAGA

Abadiño, Eskia

Joan zen asteburuan, Gartzzen Elejabarrieta abadiñarrak hirugarren postuan amaitu zuen mendiko eskiko Euskal Herriko Txapelketan.

“Lasterketa gutxi daudenez, munduko onenen alboan lehiatzea ahalbidetzen du”

Euskal Herriko Txapelketan hirugarren postua lortu zuen. Aurten hasi da lehiatzen

Elejabarrietak gutxi lehiatu du modalitatean, baina betiko afizioa du. Bestalde, Aitor Ajuria otxandiarrek garaipena eskuratu zuen promesa mailan.

Gustura lehiaketan egindakoagaz? Ibilbide teknikoa eta luzea zen. Lehiakideok gogotik sufritu genuen. Lasterketa ona egin nuen, nahiz eta akatsekin denbora galitzen dudana, baina ikasten nabil.

Gustura geratu nintzen, ez neukan gehiago emateko. Zenbat denbora daramazu eskian lehiatzen?

Oso denbora gutxi, hile batzuk baino ez. Iaz, asteburu batean baino ez nintzen lehiatu, probatzeko asmoz.

Zerk eragin zizun lehiatzeko gogoak? Txikitatik nabil eskiatzen, baina mendiko eskia lagunen bitartez ezagutu dut. Menditik arinago eta

ibilbide luzeagoak egiteko modu horrek eragin dit. Lasterketetako materialak beste askatasun bat ematen du. Gainera, motibazioa hazten joan da, eta geroago eta jende gehiago ezagutu dut kirol honetan, buru-belarri sartuta dagoena, Euskal Herriko selekzioari eskerrak gehienbat.

Zelako giroa dago lasterketetan?

Nahiko kirol txikia da, baina horrek familiartekoago bihurtzen

du. Lasterketa amaitu eta sabela betetzen dugun bitartean, karrerako gorabehera buruz aritzen gara berbetan. Lasterketa gutxi daudenez, munduko onenen alboan lehiatzea ahalbidetzen du.

Txirrindularitzan aritu zinen. Zein antzekotasun dute kirol biek?

Eskia kirol batez gero erlaziozatu behar bada, txirrindularitzagaz da, eta prestaketetan oso presente egoten da. Txirrindularitza taktikoagoa da; eskia, oster, teknikoagoa.

Zein da zure hurrengo erronka?

Elur faltak Nafarroan jokatu behar ziren binakako lasterketak atzertzea ekarri du. Beraz, Espainiako Txapelketa da orain nire helburu nagusia, hilabete barru.

Urte berriko susperraldiak Ohorezko Mailako zulotik atera du Iurretako

2020a hasi denetik, lau partidu jokatu eta euretariko hiru irabazi ditu Iurretakok



Azken asteetako bolada onari eskerrak, sailkapenean gora egin du eta azken laugarren kokatu da.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Iurretako Ohorezko Mailako goiko postuetan ibiltzera ohituta zegoen azken denboraldietan, baina aurtent mailari eustea dute zeregin nagusia. Denbora luzean sailkapeneko zuloan egon eta gero, urte berriagaz batera emaitzak heltzen hasi dira eta gora egin du.

2020an ez daki galtzea zer den. Hiru garaipenagaz hasi zuen urtea (Galdakao, Sondika eta Gatikaren aurka) eta joan zen astean bana berdindu zuen Elorrioren aurkako derbian. 2019a berdinketa batezaz amaitu zuela kontuan hartuta, iurretarek bost jardunaldiko bolada ona izan dute. Jokalari erdiak

Joan zen asteburuan, banako berdinketaz amaitu zuten Elorrioren kontrako derbia

berriak dira aurtent, eta hori da lehenengo itzuli kaskarraren arrazoiatariko bat. Baina zorte txarra izan dutela ere uste du Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak. Izan ere, irabazten zihoazen lau partidu luzapenean berdindu dizkiete. Hori gertatu zen Elorrioren kontrako derbian ere; 0-1 irabazten zihoazen eta ia luzapenean jaso zuten gola.

Jokaldia

Kepa Arroitauregi
Egaña
Pilota teknikaria



Ulergaitzak

Pilotazalea eskuz binakako txapelketaren ligatxuko azken jardunaldira begira dago. Zalea, hitzak dioen lez, kirolaren jarraitzaile da. Ondorioz, gehien ardura deusana pilotari onenak kantxan izatea eta partidu handiak ikustea da.

Halere, ezin dira alde batera utzi, begibistakoak eta ulergaitzak baitira, enpresek hartzen dituzten erabakiak. Gehientzat, ez noa denentzat esatera, ulergaitza izan zen Elezkano lehiaketan ez izatea. Bizkaitarrok haserretu arazi gintuen ASPE-ren erabakiak. Ulergaitza baita Bengoetxea VI.a txapelketatik ateratzea kirol irizpideak argudio hartuz. Leitzarraren jokoa ez zen txarra beste batzuenarekin garai haietan ikusita. Erabakiak pilotazale oro haserretu zuen.

Eta ligatxuko azken jardunaldirako, erabaki ulertezin eta aldi berean ezustekoena hartu dute. Kirol irizpidez, egokiena denez finalurrekoetara heltzeko Irribarriaren ordezkari Elezkano barrura eta ezer jokoa ez dela Bengoetxea VI.a ere berriro txapelketan Victor kanporatuta. Zer aldatu da? Ez dut ulertzen. Zein izango da hurrengo erabaki ulertezina? Finalurrekoetara sartuz gero, jarraituko ote du Elezkanok?

Niri kontu hauek guztiak ez zaizkit gustatzen, ez baitut pisuzko argudiorik ikusten. Dena den, poztentzaren naiz bi bizkaitar txapelketan ikusteaz, merezita gainera. Pena, batarentzat edo bestearentzat, azken partidua izango delako. Elezkanok bere bigarren partidua jokatu du txapelketan, ezustean, hil ala bizikoa. Irabazita ere ezer ziurtatzen ez diona. Urrutikoetxeak berea irabaztearekin nahiko. Biei ANIMO!

Zuazubiskar eta Isasi dominekin itzuli dira Espainiako Kopako jardunalditik

Asteburu borobil batean, lehiatutako hiru tituluak irabazi zituen Zuazubiskar abadiñarrak

PISTA • M.Z. / J.D.

Asteburuan Espainiako Kopako bigarren jardunaldia lehiatu zuten Madrilgo Galapagar belodromoan. Eskualdeko ordezkariak dagokienez, Illart Zuazubiskar izan da protagonista nagusia. Abadiñarrak jokoa egon diren hiru tituluak lortu zituen asteburu borobil batean. Zapatuan Espainiako Kopako bigarren jardunaldia irabazi zuen, eta baita Espainiako Kopako sailkapen orokorra ere. Domekan, Xabier



Durangaldeko txirrindulariak Madrilgo Galapagar belodromoan.

Azparrenegaz batera, madisoneko Espainiako Txapelketako onena izan zen.

Ziortza Isasi ere ez zen esku hutsik bueltatu etxera. Txirrindulari elorriarrak brontzezko domina eskuratu zuen Ana Usabiaga taldeki-deagaz batera.

Ordezkaritza zabala

Aipatzekoa da txirrindulari gazte askok parte hartu zutela Espainiako txapelketan; tartean, Markel Rodriguez abadiñarrak eta Mairu Uriarte elorriarrak. Izaro Oliveira, Oihana Ikobaltzeta eta Aimar Galdos dira euskal txirrindularien beste hiru adibide. Etorkizunean oinordekoa hartzera deituta dauden gazteak dira, eta goi mailako txapelketetara ohitzea izan zuten helburu.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **IRITSI GARA (GO!AZEN 1)**
Jasone Osoro (Alai)

2^o **BASA**
Miren Amuriza (Elkar)

3^o **MIÑAN**
Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

Ibai Ondo
Sarraigintza • Burdindegia

Geriza
mantentze-lanak eta instalazioak

**KOMUNITATEENTZAKO
MANTENTZE ZERBITZUA
SEGURTASUN KAMARAK**

Iturriza, 10 • 946 824 489 • BERRIZ • ferreteriaibaiondo@gmail.com

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrión...50 m2...igogailua dauka. Te.: 631 12 31 06

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Te.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu. Te.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu. Te.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naiz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. 3 urtean lan egin dut zahar egoitza batean eta esperientzia

daukat. Titulua ere badaukat. Te.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanean laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Te.: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Te.: 612 42 06 78

Haurrak zaindu. Goizetan haurrak zaintzeko eta etxeko lanean laguntzeko prest dagoen neska elorriarra naiz. Andereño lanean esperientzia dut. Interesa baduzu, deitu lasai. Te.: 678 21 35 47

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp-a idatzi. Tel: 688 64 59 83 zenbakira.

Euskara Irakaslea. Euskal Filologia duen irakasle bat behar dut, C1 azterketa prestatzeko. Te.: 676 57 94 44

LAN ESKAINTZAK

Anbotok banatzaileak behar ditu Durangaldean

Banatzaileak behar dira barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu. Te.: 655 71 09 31

ETXEKO LANAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea). Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Te.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barne langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602 89 50 18 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile (Interna) gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaindu, etxeko garbiketa lanak, arropa lisaketa, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: 644 558 390

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 643 72 71 98

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon...ordu solteak, lanaldi osoa... Te.: 658 03 08 36

Pertsona heldua zaintzeko pertsona bat behar da.

Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Te.: 653 74 49 88

IRAKASKUNTZA

Portugeseko klase partikularrak.

Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Te.: 678 29 11 67

Frantsesa praktikatzeko berbalagun bila nabil.

Frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Te. 617 37 89 33

Matematikako partikularrak emateko pertsona baten bila gabilta.

6. mailako (LH) ume bati matematikako partikularrak eguerdietan emateko pertsona baten bila gabilta. Te.: 649 56 34 92

Klase partikularrak (LH/DBH).

Lehen hezkuntzako edo DBHko 1go edo 2. mailako ikasleei edozein irakasgaitako lanak egiten laguntzeko edo azterketak prestatzeko prest nagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2. maila egiten ari naiz. Informazio gehiago eskuratzeko, Te.: 651 30 62 34

Goi mailako ziklo eta unibertsitate mailako klaseak ematen dira.

Algebra, kalkulia, marrazketa teknika, estatistika, kontabilitateko klaseak ematen dira. Goizez zein arratsalde, talde txikian eta bakarka. Te.: 946 550 268

Denerik

SALDU/EROSI

Ecofit plus ohe artikulatua sal-

gal. Somier eta koltxoiarekin. Gaixo dauden eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokia. Egoera oso onean. Argazkiak whatsapp bidez. Te.: 675 71 34 01

EMAN/HARTU

Arratol txakurrak oparitzen dira.

Oso txikiak dira, baserrian jaiotakoak. Otsailaren 8an 2 hilabete egingo dituzte. Te.: 610 90 21 41

ERRENTAN


Estetika kabina alokatzen da

Elorrión. Hornitua eta funtzionamenduan. Bezero finkoak ditu eta bezero kopurua handitzeko aukera ematen du; izan ere, estetika kabina ileapaindegi barruan dago. Te.: 649 77 83 93



DURANGALDEAN **ESTETIKAREKIN,**
ZERIKUSIA DUEN **NEGOZIORIK BADUZU,**
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA **ANBOTON**

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian



Botikak

BARIKUA, 21 - 09:00-09:00 SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA ZAPATUA, 22 - 09:00-09:00 MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA 09:00-13:30 BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA MELERO, Rosa Mari San Pedro 31 - ZORNOTZA 09:00-14:00 IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA 09:00-22:00 SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA DOMEKA, 23 - 09:00-09:00 BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 24 - 09:00-09:00 GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA MARTITZENA, 25 - 09:00-09:00 IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA EGUAZTENA, 26 - 09:00-09:00 SARRIA Sasikoa 17, DURANGO GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA EGUENA, 27 - 09:00-09:00 UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
---	---

Zorion Agurrak

Gure etxeko sorgin txikiak zazpi urte egingo ditu otsailaren 23an. Zorionak familia osoaren partez, eta ondo-ondo pasa zure egunean, eta bestelako egun guztietan be bai. Asko maite zaitugu!

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

Otsailean urteak egin dituzte Julenek, Jasonek eta Koldok. Zorionak, hirukote, eta musu potoloak etxeko guztien partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 4° / 17° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 20° / 7° ☀️	EGUAZTENA 🌡️ 12° / 6° ☁️
DOMEKA 🌡️ 20° / 4° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 12° / 7° 🌧️	EGUENA 🌡️ 12° / 6° 🌧️

C E R A M I C A S
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etortri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

“Esan didate Bizkaian ez dakigula sagardoa egiten, eta probatu ondoren isildu egin dira”

Txotx garaian sartuta, lanez lepo dabilta Zornotzako Etxearriaga sagardotegian. Familiako sagardotegi honek orain bost urte ekin zion bideari, Unai Bilbaok azaldu duenez, eta urte bitik hona txakolina ere saltzen dute

Unai Bilbao
Dudagoitia
(Ugao, 1980)
• Etxearriaga sagardotegia

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Aurten 4.000 litro sagardo ekoiztu dituzte Etxearriagan, eta 1.000 litro inguru txakolin. Euren sagardotegian, sasoi bateko egiteko moduekin jarraitu gura dute, eta ondo igarri dute txotx garaia zabaldu dela. Baina urte osoan datozkie sagardozealeak, Unai Bilbaok dioenez. Bost urte dira ama Marianegaz erronkari heldu zio-la, afizioa ofizio bihurtuta. "Umetatik ibili naiz sagarrak batzen, zukurako, sagardorako... beti egin dugu sagardoa baserrian", dio.

Berba bitan

Sagardoa ondoen.....
Txorizo talo bategaz.

Bakailao tortilla ala txuleta?
Txuleta.

Sagardoa, basoan ala kopan?
Kopan. Sagardoa elegantea da eta merezi du kopan zerbitzatzea.

Sagardoa hartzeko unerik onena?
Uda sasoiko iluntzean, txorizo edo gazta pintxoekin. Fresko-fresko.

Sagardoa ala txakolina?
Momentuaren arabera

Zelako ezaugarriak ditu aurtengo sagardoak?

Udan euri gutxi egin du eta graduazio gutxiagoko sagardoak irten du, baina zaporez eta usainez oso orekatua. Primerako sagardoa.

Etxeko sagarrekin egiten duzue.

Bai. 1.000 sagarrondo ditugu, eta orain 50 urte aititak ipinitako beste 100 ere bai, oso zahartuta dauden arren. Hiru hektareako mahastodia ere badugu.

Txuleta eta bakailao tortilla barik, bestelako proposamena da zuena.

Etxeko babak prestatzen ditugu, sakramentu guztiekin. Hektarea bateko soloa dugu; babak eta hirinerako artoa ereiteko, batez ere. Sasoi-

egiten, abadearen lokal batean. Jatekoa eramaten zuten: okela, barazkiak.... denen artean jateko. Eboluzioa sagardoaren kalitatean

izan da. Kontrol

eta berme maila handitu da.

Zelakoa da sagardoaren kultura Bizkaian?

Handituz

d o a . Ohi-tu-

rak aldatzen doaz. Geroago eta kuadrilla gehiago ikusten dut sagardo botilagaz. Egia esan, tabernetan erreparoa dute botila zabaltzeko, produktu naturala izanda galdu egiten delako denbora luzean zabalik badago. Botila eskaintzeko esaten diet, Asturiasen edo Gipuzkoan lez.

Badago desberdintasunik Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardoaren artean?

Oinarrian, ez dago desberdintasunik bateko eta besteko sagarren artean. Lurra, klima, erabilitako sagar motak... ia berdinak dira. Hori bai, baserri edo sagardotegi bakoitzak bere berezitasunak ditu, bere lan egiteko erak (tresnak, sagarren kalitatea, sagardo kantitatea...).

Txakolinagaz ere badago lehia...

Bai. Ahalik eta sagardo eta txakolin gehien saltzea da garrantzitsua, sagardozeale eta txakolinzealeak sortzea. Esan didate Bizkaian ez dakigula sagardoa egiten, eta probatu ondoren isildu egin dira.

Gomendioaren bat sagardoa edateko?

Botilakoa edatea. Botilatu eta gero, hilabete inguru itxaroten dugu zabaltzeko, sagardoak gorputza hartzeko, edateko perfektu egoteko. Kupelean biziago, mugituago dago. Bestalde, ez edan egun batean urte osorako sagardoa. Neurrian edan, biharamunean ondo egoteko eta hurrengoan ere bueltatzeko.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea



Denok behar zaituztegu

Argi dago gero eta ume gutxiago ikusten dela kaleetan zehar algaraka eta korrika. Gure ingurua zahartzen ari da eta egoera horrek, dagoeneko, arazoak dakartza. Populazioa orekatzeko, politikariak eta enpresariak migratzaileak eskatzen ari dira hutsenei erantzuteko. Baina, egoera honen aurrean, non geratzen dira etxeok? Gizarteak hezkuntzan diru asko jarri eta gero, goi mailako formakuntza duten gazte asko kanpora joaten dira hemen ez daukatenaren bila, eta beste herrialde batzuk ateratzen diote etekina formakuntza horri, musu-truk.

Migratzaileak bai, baina zein baldintzekin? Hiru urte ezkutuan izateko paperak lortu ezinik? Edo urte bat bete arte Osakidetza txartelik gabe izateko? Edo menpean ditugunez lan baldintza kas-karretan lan egin arazteko?

Migratzaileak bai, baina kontratua lortzeaz batera paperak eskuetan dituztelarik eta beste langile eta herritarrek dituzten eskubide eta obligazio berdinekin. Ezin dugu lehen mailako eta bigarren mailako gizarterik sortu. Gizakiak ez luke mugarik izan behar eta aske izan beharko luke mundu zabal honetan harantz edo honantz bidaiatzeko edo errotzeko. Askatasuna hertsiki loturik dago bakoitzak nahi duen bizitza egiteko eta nahi duen tokian bere bizitza-proiektua aurrera eramateko.

Ezin ahaztu, honengatik edo horrengatik, agian, bihar edo etzi geu ere migratzaileak izango garela eta gure etxea eta etxeok atzean utzita alde egin behar dugula egoera hobe baten bila. Kasu horretan abegi ona izatea gura izango genuke, ezta? Orduan, ez dezagun egin besteekin guretzat nahi ez duguna. Ea dena egoki bideratzen den migratzaileen integrazioa egokia eta zuzena izan dadin, eta garrantzitsuenak, gure gazteak kanpora joan beharrean gurekin geratzen diren.

ko ortuariak ere baditugu. Baina norbaitek kapritxoak badu, txuleta eta bakailao tortilla ere ematen ditugu. Etxeko produktuak erabiltzen ditugu, gertukoak. **Lehen, bakoitzak bere jatekoa eramaten zuen sagardotegira. Eboluzio handia gertatu da?**

Bai. Neuk ere ikusi dut, Elizondo inguruan, herri-tar bakoitzak eramandako sagarrekin sagardoa



merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)